KIROLA: BIDASOA ETA TEKA ESKUBALOI TALDEAK ARRASATEN /10


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko otsailaren 4a • V. urtea • 186. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA




**KULTURA**
Ordiziar batek irabazi du amodiozko gutunen lehiaketa /15

**JOSEBA AZKARRAGA** / ARALAR
*"Bakea gertuago egon daitekeela dirudi, baina, orain jarri dute abian 18/98 sumarioa"* **/9**

**Goienka2a**
Debagoieneko kultura produktuak, Euskal Herri osoan




ENEKO AZKARATE

## 18/98 sumarioaren aurkako plataforma

Plataforma bat eratu dute Debagoienean, 18/98 sumarioan auziperatuak daudenei babesa emateko. Eskualdeko hainbat pertsona ezagunek osatzen dute plataforma hori, eta oraingo astean aurkeztu dute Bergaran. *18/98 eta gehiago* dauka izena ekimenak. Euskal Herri osoan 220 auziperatu daude sumario horretan. Modu batean edo bestean inputatuta: ETAko kide edo laguntzaile izatea, banda armatuan integratuta egotea… Debagoienean, berriz, zazpi dira auziperatuak: Jose Luis Elkoro, Iñigo Elkoro, Fermin Lazkano eta Xabier Arregi bergararrak, Natale Landa eta Amaia Arrieta arrasatearrak eta Bixente Enekotegi eskoriatzarra. **/6**

**ASTEKO GAIA:** ESTATUS POLITIKOA ESKATZEN DUTE

# Debagoieneko 34 presoak, borrokaldian

Euskal presoak borrokaldian dabiltza; tartean, Debagoieneko 34 presoak ere. Urtarril hasiera ezkero, txandakako itxialdiak egiten dihardute. Zazpi txanda dira, eta guztietan dago gutxienez ibarreko presoren bat. Helburua da isolamendu politikoarekin bukatzea eta bi eskubide mota aitor diezaieten lortzea: oinarrizko eskubideak eta eskubide politikoak. Euren esanetan, sakabanaketak eragiten du eskubide galera. Ibarreko presoetatik bakarra dago Euskal Herrian.

Bitartean, kalean mobilizazioak egiten ari dira. Bihar, zapatua, Jon Agirreren aldeko manifestazioa eta datozen egunotan sinadura bilketa izango dira. **/2-3**

## Zubillagako hiltegiaren etorkizunaz jardungo dute datorren astean

Zubillagako hiltegiaren eta ibarreko harakinen etorkizunaren gaineko jardunaldiak egingo dituzte datorren martitzen eta eguaztenean Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Eskoriatzako Udalak antolatu ditu jardunaldiok. 13 lagun daude deituta parte hartzera, eta ateak irekita izango dira edozein herritarrendako; hala, galderak egiteko aukera izango dute. **/4**






**OÑATI**

### Turismoa %18 hazi zen iaz; hau da, inoiz baino gehiago

Oñatin turismoak azken urteotako zifra onenak izan zituen 2004an; izan ere, aurreko urtearen aldean %18 hazi zen turismoa. Oso zifra esanguratsua, kontuan hartuta 2001a ezkero batez beste %10 igo izan dela. Guztira, 13.061 bisitari izan dira Oñatin 2004an. Azpimarragarria da atzerritik eta Estatutik asko etorri direla. **/4**







DEBAGOIENA/4-6 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

# Ibarreko 34 presoak itxialdian daude

## Eskubide politikoak eta oinarrizkoak bermatzea eskatzen dute

LEIRE KORTABARRIA

Ahots askok gauza bera diote: Euskal Herrian bakea lortzetik inoiz baino gertuago egon gintezke. Batetik, Ibarretxe Egitasmoaren gaineko eztabaida dago; horren harira, Espainiako Gobernuak elkarrizketarako atea zabaldu duela dirudi. Gainera, Batasunak Orain Herria, Orain Bakea proposamena aditzera ematen jarraitzen du.

Prozesu politikoa aurrera doa, hortaz, eta euskal presoek, EPPK kolektiboan batuta, euren eskubideak errespeta daitezen eskatzeko borrokaldia hasi dute. Hor daude baita Debagoieneko 33 presoak ere. Isolamendu politikoarekin bukatzea da helburua.

**ISOLAMENDUAREKIN AMAITU**

Borrokaldia urtarrilaren 4an hasi zuten. Martxoaren 15era bitartean, zazpi txandatan, presoek hamar eguneko itxialdiak egiten dihardute. Denetan dago Debagoieneko presoren bat. Horren aurretik, urtarrilaren 3an, planto bat egin zuten, eta Antxon Sasiain bergararra zigortu egin zuten horregatik. Borrokaldiak irauten duen bitartean, kalean mobilizazioak daude. Azken helburua da isolamendu politikoarekin bukatzea.

Aldarrikapen honek badu berezitasun bat: oinarrizko eskubideekin batera, batik bat azpimarratzen dute eskubide politikoak behar dituztela, "Euskal Herriko prozesu politikoan konponbiderantz aurrerapausoak emateko behar direnak", Debagoieneko bozeramaleek diotenez.

## Debagoieneko presoak

**717 euskal presoetatik 34 dira Debagoienekoak. Ibarreko herri guztietako presoak daude, Gatzaga eta Elgetakoak izan ezik. Horietatik bakarra dago Euskal Herrian.**




**Datuak**

| | |
|---|---|
| **Preso Frantzian** | 8 |
| Euskal Herrira bataz besteko kilometroak | 797 |
| **Preso Espainian** | 25 |
| Euskal Herrira bataz besteko kilometroak | 609 |

ITURRIA: SENIDEAK

bigarren
betaurrekoak
**dohainik**
betaurreko berriak
erostean...



INSTITUTO OPTICO

**ARRASATE:**
Erdiko kaleko 22.
Tel.: 943 79 71 68

**BERGARA:**
Bidekurutzeta 10.
Tel.: 943 76 97 03

### Debagoieneko presoak

| IZENA | NONGOA | NOIZTIK PRESO | TXANDA |
|---|---|---|---|
| Jesus Mari Zabarte | Arrasate | 1984.06 | Urtarrila 4-14 |
| Antxon Sasiain | Bergara | 2002.11 | Urtarrila 4-14 |
| Josu Uribetxebarria | Arrasate | 1997.07 | Urtarrila 14-24 |
| Mikel Garaiondo | Bergara | 2003.11 | Urtarrila 14-24 |
| Igor Letona | Arrasate | 2003.11 | Urtarrila 24-Otsaila 3 |
| Ane Miren Alberdi | Bergara | 2003.01 | Urtarrila 24-Otsaila 3 |
| Jose Ignazio Gaztañaga | Arrasate | 1988.03 | Urtarrila 24-Otsaila 3 |
| Jose Gabriel Urizar | Arrasate | 1985.02 | Urtarrila 24-Otsaila 3 |
| Joseba Arregi | Oñati | 1992.03 | Urtarrila 24-Otsaila 3 |
| Jon Mikel Illarramendi | Oñati | 2003.07 | Otsaila 3-13 |
| Kristina Goirizelaia | Arrasate | 2003.01 | Otsailk 3-13 |
| Mikel Askasibar | Bergara | 1991.02 | Otsaila 3-13 |
| Jose Luis Erostegi | Antzuola | 1997.07 | Otsaila 3-13 |
| Xabin Usandizaga | Oñati | 1997.07 | Otsaila 3-13 |
| Xabier Lazkano | Bergara | 1993.08 | Otsaila 3-13 |
| Txus Goikoetxea | Arrasate | 2001.06 | Otsaila 3-13 |
| Miguel Gaztelu | Bergara | 1997.07 | Otsaila 13-23 |
| Mikel Zubimendi | Bergara | 1999.03 | Otsaila 13-23 |
| Unai Parot | Arrasate | 1990.04 | Otsaila 13-23 |
| Josu Arkauz | Arrasate | 1991.03 | Otsaila 13-23 |
| Alberto Plazaola | Oñati | 1990.11 | Otsaila 23-Martxoa 5 |
| Kepa Urra | Aretxabaleta | 1989.01 | Otsaila 23-Martxoa 5 |
| Xabier Ugarte | Oñati | 1997.07 | Otsaila 23-Martxoa 5 |
| Paulo Elkoro | Bergara | 2003.01 | Otsaila 23-Martxoa 5 |
| Amaia Arrieta | Arrasate | 2001.05 | Otsaila 23-Martxoa 5 |
| Premin Sanpedro | Arrasate | 2001.06 | Otsaila 23-Martxoa 5 |
| Jon Agirre | Arrasate | 1981.05 | Otsaila 23-Martxoa 5 |
| Aratz Gomez | Arrasate | 1999.11 | Otsaila 23-Martxoa 5 |
| Gaizka Azkarate | Arrasate | 2003.11 | Martxoa 5-15 |
| Karmen Irizar | Antzuola | 1998.03 | Martxoa 5-15 |
| Luis Mari Azkargorta | Bergara | 2003.11 | Martxoa 5-15 |
| Marisol Iparragirre | Eskoriatza | 2004.10 | Martxoa 5-15 |
| Saioa Altzua | Arrasate | 2003.11 | Martxoa 5-15 |
| Patxi Cabo | Antzuola | 2004.11 | Martxoa 5-15 |

**ALAITZ ARANTZABAL** / BARAUALDIAN PARTE HARTU ZUEN

# *“Ezinbestekoa da euskal presoek prozesu politikoan esku hartzea”*

**Presoen egoerarekin konprometituta dago Alaitz Arantzabal 20 urteko arrasatearra. Gabonetan, baraualdi baten parte hartu zuen, Arantzazun.**


Alaitz Arantzabal.

**Zelako esperientzia izan zen baraualdi hura?**

Bost egun jan gabe egotea gogorra da, bai; elurra egin zuen, hotz zegoen… Baina presoei indarrak berritzen dizkie ikusteak jendea euren alde dagoela; gainera, eurak askoz okerrago daude: ziegan, etxetik urruti… Gainera, Arantzazun nengoela, preso dagoen lehengusuaren dei bat jaso nuen eta gosea joan egin zitzaidan.

**Zu zeu zelan hasi zinen inplikatzen?**

Orain 8-9 urte, presoei gutunak idazten hasi nintzaien, eta horren bidez, lagun handiak egin ditut. Lehengusua ere preso daukat. Sarritan joaten naiz kartzelatara bisitan: Madrilen, Murtzian, Andaluzian… Orain, nik maite ditudan pertsonak dira eta haien falta sumatzen dut.

**Zer diote presoek kanpoko jendearen ekintzez?**

Ilusio handia egiten die. Zoritxarrez, orain eurak daude borrokan, batez ere, dagokien estatus politikoa onar diezaieten. Ezinbestekoa da presoek prozesu politikoan esku hartzea.

**Bat egin nahi duenak zein beste aukera ditu?**

Ekintza asko dago: kale agerraldiak, kontzentrazioak… Baina garrantzitsuena da informazioa jasotzea, gizarteak jakin dezala kartzeletan zer gertatzen dabilen, eta jakin dezala baita arazoa guztiona dela.

**Bisitan joaten den askok senideak eta lagunak eramaten ditutze, ezta?**

Bai, boluntarioak daude asteburuero jendea eramateko. Autobusak antolatzen dira, eta ezinbestekoa da jendea anima dadila eta erabil ditzala, bestela, kendu egin beharko dituzte. Jendeari dei egin nahi diot presoekin inplika dadila, benetan merezi du eta.

Honakoak dira: elkartzeko eskubidea; mintzaide direla aitortzea; kolektiboak bere burua antolatzeko eskubidea; kolektibo bezala, gainontzeko eragile politikoekin hartu-emana izateko eskubidea; eta euskal eztabaida eta erabaki guneetan parte hartzeko eskubidea. Izan ere, arazoa da talde horrek argi duela bere izaera politikoa, baina ez zaiola hori aitortzen.

Oinarrizko eskubideak, berriz, sakabanaketa politikak urratzen dizkien eskubideak dira: isolamendua, jipoiak, bizi arteko zigorrak, komunikazio murrizketak, ikasteko oztopoa… salatzen dituzte.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren esanetan, sakabanaketak eragiten du bi eskubide mota horiek urratzea. Hortaz, eskatzen dute sakabanaketarekin bukatzea, eta, horrekin batera, hitza eman diezaieten: “Prozesuan euskal herritar guztiok badugu hitza, euskal presoek ere izan behar dute. Bere ekarpenak eta iritziak parekatuz eragile bezala parte hartu nahi du kolektiboak”.

Aspaldiko aldarrikapenak berriro mahairatu dituzte: tartean, gaitz larriak dituzten presoak aske uztea. Ildo horretan, Jon Agirre debagoiendarraren aldeko mozio bat onartu berri du Arrasateko Udalak. Eusko Legebiltzarrera ere eraman zuten Sozialista Abertzaleek arrasatearraren aldeko ahotsa.

**KONPONBIDEA, DENON ESKU**

Bien bitartean, euskal gizarteak hainbat modutara erantzuten dio ekimen horri. Jose Mari Etxaniz bergararrak, preso ohi bezala, “sentsibilizazio falta” sumatzen du gizartean, kontuan izanda “zeresan handia duen kolektiboa” direla presoak. Hori dela eta, jendea animatzen dute otsailaren 13 inguruan egingo duten sinadura batzean parte hartzera.

Azkenaldian politikan gertatzen ari diren mugimenduak kontuz hartzen dituzte hainbatek. Etxanizek dioenez, “oztopo handiak daude eta ikusi beharko da bakoitzak zein herri eredu nahi duen. Zaila da esaten hemendik aurrera nola datozen gauzak. Nire ustez, konponbidea denon esku dago”.

Etorkizun politikoaren nondik norakoak jakiteke, presoen aldeko ekimenak argi dauka zer egin behar den: “Ez da konponbiderik etorriko euskal preso politikoen parte-hartzerik gabe”.

JON AGIRRE

### Preso aramaioarraren aldeko agerraldia Mondragoen

**Jon Agirre aramaioarra Euskal Herrira ekartzeko eskatzeko manifestazioa izango da bihar, hilak 5, Arrasaten, 19:00etan. Agirrek 62 urte ditu eta horietatik 23 eta erdi kartzelan eman ditu. Orain, gaixo dago Malagako espetxean. Gainera, zigorraren hiru laurdenak orain hamar urte bete zituen. Bere aldeko plataforma osatu dute, eta aldarrikapen horiekin bat egin dute Arrasate eta Aramaioko udalek eta hainbat alderdi eta sindikatuk.**



18/98 SUMARIOA

### Hamar urteko zigorra eskatzen dute Amaia Arrietarendako

**Amaia Arrieta gazte mondragoetarra epaituko du Auzitegi Nazionalak, beste 41 gazterekin batera, 18/98 sumarioaren ondotik, Jarrai-Haika-Segi erakundeko kide izateagatik. “Fiskalak hamar urteko espetxe zigorra eskatzen dio orain, soilik gazte erakundeko partaide izateagatik eta inolako frogarik gabe”, salatzen du 18/98 Sumario Erraldoiari Aurre Egiteko Babes Plataformak, Arrasaten.**

CURTISERA MARTXA

### Espetxera irteera eta aldarrikapena antolatu dituzte

**Kepa Urra preso aretxabaletarraren urtebetetzea denez otsailaren 13an, hainbat herrikidek bisita egingo diote Coruñan, Curtis kartzelan. Datorren egubakoitzean, hilak 11, irtengo dira Aretxabaletatik. Izenematea zabalik dago Urbaltz tabernan. Bestetik, Bergaran giza-katea egitekoak ziren eguenean, otsailak 3, eta antolatzaileek salatu dute, baimena eskatzean, Ertzaintzak identifikazioa eskatuko ziela mehatxatu zituela.**

CHEVROLET
GIPUZKOA AUTOAK
Otaola Etorbidea, 27 - Eibar - Tel.: 943 20 25 00
Karobi industrialdea z/g - Olaberria - Tel.: 943 88 51 50
w w w . c h e v r o l e t . e s

Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

Langile okupatuentzako %100 prestakuntza finantziatuak
Informatika
Disenua
Gestioa
Hizkuntzak
Giza baliabideak
AKADEMIA BASTIDA
Info: 943 79 35 33
formacioncontinuabego@bastida.es




GOIENKARIA

Zubillagako hiltegiaren aldeko plataformako kideek ere hartuko dute parte datorren astean Eskoriatzan egingo diren jardunaldietan.

# ONCEko kupoien salmenta %6,45 jaitsi da Debagoienean

*2001az geroztik txartel gutxiago saltzen dira gurean*

MARIA AGIRRE

**Itsuen kupoiak saltzen ibiltzen direnek igarri dute salmenten beherakada Debagoienean ere. Azken urteotan, %6,45 jaitsi da salmenta gurean. Hala ere, esan digute ibarreko egoera ez dela larria.**

Arrasaten ONCEk duen bulegokoek adierazi digute kupoien salmentak behera egin badu ere, egoera ez dela larritzekoa. Azken finean, gero eta zozketa gehiago dagoela, eta ohiko zozketek indarra galtzea pentsatzekoa zela esan digute. Duela hilabete gutxi, El Combo lehiaketa kaleratu zuen ONCEk, eta ohiko kupoien salmentak igarri du hori ere.

Kontuak kontu, Espainiako Estatuan ONCEren kupoien salmentak behera egin du, eta gurean ere 2001az geroztik %6,45 jaitsi da, eta Gipuzkoan %12,5. Salmentei dagokienez, 2001. urtea oso ona izan zen, eta ordutik hona ezinezkoa izan dute mailari eustea. 2003tik 2004ra, berriz, kupoien salmentak %1,75 egin zuen behera Debagoienean.

Gaur egun, 24 lagun aritzen dira ibarrean itsuen kupoiak eta bestelako txartel batzuk saltzen, eta lanpostu horiek arriskuan ez daudela ziurtatu digute ONCEko arduradunek. Are gehiago, gaixoaldi-bajetarako eta oporretarako jendea behar dutela azpimarratu digute ONCEko Arrasateko bulegoan.

# Zubillagako hiltegiaren etorkizunaz jardungo dute datorren astean

*Eskoriatzako Ibarraundi museoan izango dira jardunaldiak*

ENEKO AZKARATE

**Zubillagako hiltegiaren eta ibarreko harakinen etorkizunaren gaineko jardunaldiak egingo dituzte datorren astean Eskoriatzan.**

Jardunaldiak datorren martitzenean eta eguaztenean egingo dituzte, Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Eskoriatzako Udalak antolatu ditu jardunaldiok. Bi saio izango dira eta biak 18:00etan hasiko dira. 13 lagun daude deituta jardunaldiotan parte hartzera —bakoitzak hamar minutu izango ditu azalpenak emateko— eta ateak irekita izango dira edozein herritarrendako, eta galderak egiteko aukera ere izango dute.

### INFORMATZEA HELBURU

Eskoriatzako Elizateak taldeko zinegotzi Jabier Villar izan da jardunaldi horien bultzatzaile nagusia: "Helburua da jendea informatzea, hau da, arazoaren gaineko informazioa egokia ahalik eta jende gehienak izatea. Abere hiltegia ez ixteko arrazoiak dituztenei eta ixtea komeni dela diotenei entzutea. Jendeak izan dezala iritzi bat, baina horretarako ahalik eta informazio osatuena", esan digu Javier Villarrek.

### ARLO EZBERDINEKO JENDEA

Hiltegiarekin loturaren bat duten eta oro har nekazaritza sektorearekin zerikusia duten pertsonak gonbidatu nahi izan dituzte jardunaldiotan parte hartzera. Denek, hala ere, ez dute ziurtatu parte hartuko duten edo ez.

Lehenengo egunerako, hilaren 8rako, honako hauek gonbidatu dituzte: German Berezibar, Zubillagako hiltegiko gerentea; Mari Karmen Iturbe, Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartekoa; Eneko Karrera, EHNEkoa; Xabier Iraola, ENBA sindikatukoa; German Muruamendiaraz, Kalitatea Fundaziokoa; Juan Carlos Bengoa, Eskoriatzako alkatea; Jexus Argiñarena, Gipuzkoako Foru Aldundikoa; eta Gurokela elkarteko kide bat. Hurrengo egunean, beste hauek: Jon Leturia, Gipuzkoako Harakinen Federaziokoa; Arantza Igartua, harakina; Pedro Lasagabaster ganaduzalea; Eneko Egibar, albaitaria; eta Humberto Nogeira, albaitaria hura ere.

> *Gonbidatuta daude baserritarrak, harakinak eta erakundeetako ordezkariak*

### ALDEKOAK ETA AURKAKOAK

Eskoriatzako Udala Zubillagako abere hiltegia zabalik jarraitzearen aldekoa da. Iritzi bera dute baserritarren sindikatuek, beste hainbat erakundek eta harakinek ere. Hiltegia zerbitzu publiko bezala ulertzen dute horiek. Jaurlaritza, ostera, beste eredu baten aldekoa da, hau da, hiltegi gutxiagotan batzearena produkzioa, zerbitzua lehiakorragoa izan dadin.

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Urretxindorrak musika taldeko kide Raul Calvo hil egin da, bihotzekoak jota

Bergarako Urretxindorrak musika taldeko Raul Calvo astelehenean hil zen, 55 urte zituela. Bihotzekoak jota hil zen, Logroñon. Haren aldeko hileta elizkizunak Bergarako San Pedro elizan egin zituzten martitzenean. Urretxindorrak taldea oso ezaguna egin zen 60ko eta 70eko hamarkadetan. Hainbat disko txiki argitaratu zituzten, tartean *Aitorren hizkuntza zaharra* izenekoa, ospe handia lortu zuena. Orain dela gutxi, CD batean batu zituzten orduko hainbat kanta, Bergarako Gure Ametsa elkarteak 50 urte ospatu zituela-eta.

### Gipuzkoako herrien izenak zelan idatzi behar diren arautu du Euskaltzaindiak

Gipuzkoako Herri Izendegia aurkeztu dute Euskaltzaindiak eta Foru Aldundiak. 1979an egin zuen izendegia osatu eta borobildu egin du Euskaltzaindiak. Gipuzkoako 89 herriak eta eskualdeak zelan idatzi behar diren arautzen du izendegiak: *Leintz Gatzaga* marratxo barik idatzi behar dela esaten du; zehar marra erabili behar da *Donostia/San Sebastian, Arrasate/Mondragon* eta halakoak idazteko; eta *Bidegoian* izenaren ordez *Bidania-Goiatz* idatzi behar da.

### MCCko buru Jesus Cataniaren etxearen aurka pintura gorri eta horia jaurti dute

MCC taldeko Errektore Kontseiluko presidente Jesus Cataniaren etxebizitzaren fatxadari pintura gorri eta horia bota zioten atzo. Aretxabaletako Errekabarren kalean bizi da Jesus Catania, eta fatxadako leihoetara jaurti zuten pintura, bestelako kalterik eragin barik. GOIENKARIAren erredakziora bidalitako komunikatu anonimo batean jasotzen denez, ekintza horren arrazoia da MCCk Espainiako Erregea Arrasatera gonbidatu izana.

LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA
Begietako mikrokirurgia:
Kataratak: Miopia / Hipermetropia.
Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatua

Manuel Salaberria Mediku oftalmologoa

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

# Bergarako eta Aretxabaletako udalek alegazioak jarriko dizkiote tranbiari

*Tranbiaren behin-behineko proiektuaren planoak udaletxeetan daude ikusgai*

OIHANA ELORTZA

**Bergarako eta Aretxabaletako udalek alegazioak aurkeztuko dizkiote behin-behineko proiektuari. Lehen faseko hiru udalek epeak hilabete atzeratzeko eskatu dute. Herritarrek hilaren 15a baino lehen egin behar dute.**

Bergarako Gabiriako gunea da, oraindik ere, tranbiaren proiektuak duen zailtasun handiena. Eusko Jaurlaritzak behin-behineko planoetan jasotzen duen irtenbidea ez zaio egokiena iruditzen Bergarako Udalari, eta beste aukera bat aztertu du.

Jaurlaritzak egin duen trazatuan geltoki bat ageri da Torrekuan. Puntu horretatik Labegaraieta auzora joateko, Arrasate alderako noranzkoan, lurra zulatzea proposatzen dute orain oinezkoendako dagoen tunelaren sarreran. Lur azpian sartu, lur azpitik pasatzen du errepide nagusiaren bihurgunea, eta Mayc-eko biribilgunearen parean, baina erreka ondoko ortuetan irteten da kanpora.

**GABIRIAKO GUNEARI IRTENBIDEA**

Bergarako Udalak, berriz, inguru horren azterketa teknikoa egin du Sestra enpresaren bitartez. Azterketa horrek beste irtenbide bat ematen dio Gabiriako guneari. Horrek planteatzen du zati bat kentzea semaforoak dauden gunetik Arrasaterako noranzkoan ezkerretara dagoen mendiari, eta beste zati bat eskumara dagoen San Antonioko Algodonera dagoen tokiari. Era horretan, gune hori zabaltzea lortuko lukete eta bi tunel egingo lituzkete: autoendako bat eta tranbia eta bidegorriarendako beste bat.

Azterketa tekniko horrekin, alegazioa aurkezteko asmoa du Bergarako Udalak. Kiroldegi inguruan geltoki bat eskatzeko asmoa ere badu udalak, eta herri barruan tranbiak duen trazatuan beste aldaketa batzuk egin daitezkeen ere ari da aztertzen. Dena egindakoan, zenbat eta nolako alegazioak aurkeztuko dituen erabakiko du.

**ARRASATE ETA ARETXABALETAKO UDALAK**

Arrasateko Udalak eskatu zuen Elorregitik Epelera bitarteko bide-gorria errespetatzea. Eskaera hori errespetatu egin du Jaurlaritzak, eta, alkateak esan digunez, Arrasateko Udalak ez du orain alegaziorik aurkezteko asmorik, aldaketa txiki batzuk egitea litekeena den arren. Aretxabaletako Udalak, aldiz, badu alegazioa aurkezteko asmoa. Oraindik ez daki nola aurkeztuko duen alegazioa, baina planoak aztertzen ari dira, eta erabaki bezain pronto egingo du.

*Hiri artean, 80 kilometro orduko izango du; hirigunean, 50, eta oinezkoenetan, 30*

*Hamabost minutuan behin pasako da eta lau tranbia ibiliko dira noranzko bakoitzean*

**AUZOTARREN KEXAK**

Partikularrek otsailaren 15a arte dute alegazioak aurkezteko. Bergarako Ozaeta eta Labegaraieta auzoetan, adibidez, sinadurak batzen ari dira tranbia errepidetik pasa dadin eskatzeko, eta ez orain bide-gorria dagoen tokitik. Bide horretan transformadore elektriko bat dago, eta garajeen sarbidea oztopatuko luke tranbiak; bestalde, anbulantziek, adibidez, ezingo lukete hortik pasa. Aretxabaletan ere herritar batzuek tranbia Durana kaletik pasa ordez Errekabarren kaletik pasatzea proposatzen dute.

**HAMABOST MINUTUAN BEHIN**

Tranbia hamabost minutuan behin pasako da noranzko bakoitzean, eta ia 34 minutu beharko ditu ibilbidea egiteko. Hamar tranbia egongo dira, lau noranzko bakoitzeko, eta beste bi erreserban. Bergara iparretik Elorregira zazpi geltoki izango ditu; handik Fagor Etxeko Tresnak lantegiaren parera, bederatzi, eta handik Aretxabaletako Gipuzkoa plazara, hiru. Hala ere, tokiak aldatu egin daitezke, udalek eskatzen badute eta eskaerak onartzen badituzte.

Debagoiena lotuko duen tranbiak hiru fase izango ditu, eta lehena izango da Aretxabaletatik Bergara artekoa. Lanen exekuzio epea 36 hilabete da, baina oraindik ez dute zehaztu lanak noiz hasiko dituzten. Aurrekontua da 90.078.267 euro.

## Tranbia Debarroan



**ARETXABALETA-BERGARA**

Jaurlaritzak proposatzen du lanak Aretxabaletan hastea. Handik, Arrasatetik igaro eta, Elorregiko bidegurutzean, Bergarara joko du. Izan ere, Aretxabaletatik Bergarararaino izango dira, aurreikuspenen arabera, bidaiari gehien.

**OÑATI, ESKORIATZA ETA MALTZAGA**

Bigarren fasean, Elorregitik Oñatiraino eta Aretxabaletatik Eskoriatzaraino eta hirugarrenean, Bergaratik Maltzagarainoko adarra egingo dute.

**AUTOBUSA ETA TRENA**

Gatzaga, Antzuola, Aramaio eta Elgeta autobusez lotuko dituzte tranbiaren ibilbidearekin. Autobus txartelek tranbiarendako ere balioko dute. Autobusak 20 minutuan behin irtengo dira. Sarea osatuko da Maltzagatik Debara (trenez) eta, azkenik, Mutrikura (autobusez).




| Zatia | Luzera | Geltokiak | Denb. |
|---|---|---|---|
| Bergara | 2.845 m | 6 | 9,7 min. |
| Bergara-Arrasate | 6.849 m | 1 | 7,3 min. |
| Arrasate | 3.006 m | 7 | 11,1 min. |
| Arrasate-Aretxabaleta | 1.861 m | 1 | 1,7 min. |
| Aretxabaleta | 1.328 m | 3 | 3,8 min. |
| GUZTIRA | 15.889 m | 18 | 33,6 min. |

| Ezaugarriak | |
|---|---|
| Luzera | 18,6 m |
| Zabalera | 2,3 m |
| Jarlekuak | 30-40 |
| Bidaiariak | 131-134 |
| Pisua | 16,7 tona |



GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko otsailaren 4a

# Plataforma bat, 18/98 sumarioan auziperatuak daudenei babesteko

*'18/98 eta gehiago' dauka izena Debagoienean sortu berri den plataforma herritarrak*

ENEKO AZKARATE

**Plataforma bat eratu dute Debagoienean, 18/98 sumarioan auziperatuta daudenei babesa emateko. Eskualdeko hainbat pertsona ezagunek osatzen dute plataforma, eta oraingo astean aurkeztu dute, Bergaran. 18/98 Eta Gehiago dauka izena ekimenak.**

Azkenaldian sarri aipatzen da hedabideetan-eta 18/98 sumarioa. Auzi erraldoi horretan, Espainiako Auzitegiko beste hainbat sumario batzen dira, denak ETArekin lotura dutenak: Egin eta Orain SA auzia, Haika-Segi-Jarrai, Xaki, Ekin, *Egunkaria*, Herriko Tabernen ingurukoa…

Euskal Herri osoan 220 auziperatu daude sumario horretan. Modu batean edo bestean inputatuta: ETAko kide edo laguntzaile izatea, banda armatuan integratuta egotea… Batzuk kartzelan daude eta beste batzuk aske; horietako gehienak, baina, dirutza handiak ordainduta berme moduan, kalera ateratzeko. Epaiketaren zain daude gehienak. Badira —Amaia Arrieta arrasatearraren kasua da— lau urte daramatenak epaiketaren zain kartzelan. Orain, preso prebentibo moduan kalera ateratzeko orduan heldu zaionean, epaiketa prozesua azkartu egin diote eta martxoan epaituko dute. Haika-Segi-Jarrai sumarioaren barruan dago auziperatua.

#### DEBAGOIENEAN ZAZPI LAGUN

Gure eskualdean zazpi lagun dira 18/98 sumarioaren barruan inputatuta daudenak. Honako hauek: Jose Luis Elkoro bergararra (Orain SA zatian auziperatua), Iñigo Elkoro bergararra (Xaki), Fermin Lazkano bergararra (Berria), Bixente Enekotegi eskoriatzarra (Herriko Tabernak), Xabier Arregi bergararra eta Natale Landa arrasatearra (Ekin), eta aipatutako Amaia Arrieta. Arrieta izan ezik, besteak aske daude, epaiketaren zain.




GOIENKARIA

Eguaztenean aurkeztu zuten Bergaran *18/98+...* izeneko plataforma. Ibarreko 50 bat lagun batu ziren ekitaldian.

> *Euskal Herri osoan 220 auziperatu daude sumario horretan; horietatik 7 dira eskualdekoak*

> *Atxikimenduak lortzeko sinadura-batze kanpaina bat abiaraziko du plataformak*

> *"Berme juridiko guztiak nahi ditugu, baita inputatuta daudenendako ere", diote bultzatzaileek*

#### PLATAFORMA ZABALA

Orain dela aste batzuk aurkeztu zuten 18/98 Eta Gehiago izena daukan ekimena. Eskubide zibil eta politikoen alde lan egiteko izaera nazionaleko lantaldea da hori.

Plataforma hori gure eskualdean ere osatu dute. Pentsamendu eta ideologia askotariko jendeak osatzen dute. Aurkezpen ekitaldian, 50 bat lagun elkartu ziren. Maite Aristegi abokatuak egin zituen bozeramaile lanak eta haren ondoan egon ziren Jose Luis Elkoro eta Natale Landa, auzi horretan inplikatuetako bi. Haien atzean, auziperatuta dauden ibarreko batzuk, eta guztiei babesa ematen, eskualdeko pertsona ezagunak: Xabier Zubizarreta, Anjel Bergaretxe eta Mireia Unamuno, Arrasate, Aretxabaleta eta Antzuolako alkate izandakoak; Juan Martin Elexpuru (Aralar); ELA eta LAB sindikatuetako kideak; EHE eta AEDkoak; Inazio Arregi (Goiena); Mikel Irizar iritzi emailea; Joxe Antonio Aspiazu irakaslea; Pello Zabala, Jose Mari Etxaniz preso ohia...

#### ESKUBIDEAK DENONDAKO

Maite Aristegik aurkezpenean adierazi zuenez, pertsona orori dagozkion eskubideak errespeta daitezela eskatu nahi du talde horrek: "Berme juridiko guztiak nahi ditugu, baita inputatuta daudenendako ere. Haien eskubideak aldarrikatuta, denonak aldarrikatzen ditugula uste dugu, baita geureak ere. Zeharo legitimoak diren ekimen politiko eta sozialak terrorismo delitutzat jo eta zigortu nahi direnean, ez daukagulako beste alde batera begira egoterik".

#### HAINBAT EKIMEN

Bultzatzaileek adierazi zutenez, sarea bultzatzeko asmoa dute eta Arrasaten eta Bergaran sarri elkartzeko borondatea. Horrez gainera, atxikimenduak lortzeko sinadura-batze kanpaina bat abiaraziko dutela aurreratu zuten. Euskal Herri osora begira, hil honen 19an Kursaalen batzar zabal bat egingo dutela ere adierazi zuten. Inputatuez gain, haiei babesa erakutsi dietenak ere batzarrean elkartuko direla esan zuten, "ahots ozen bat zabaltzeko", eta, azkenik, aste batzuk barru manifestazio nazionala egingo dutela aurreratu zuten.

## MAITE ARISTEGI

TALDEKO BOZERAMAILEA

### "Ideia guztiak garatzeko, askatasuna beharrezko dugu"

Ekimen horren alde dauden guztiok ez dauzkagu planteamendu sozial edo politiko berberak; inputatuen artean ere hainbat oinarrizko kontzepturen inguruan askotariko ikusmoldeak izango dira. Gure helburua ez da inoren ideiak defenditzea, baizik eta ideia horiek eduki eta adierazteko eskubidea daukagula aldarrikatzea, eta baita demokratikoki aurrera ateratzeko eskubidea ere. Ez dugu etikotzat jotzen norberak bezala pentsatzen ez dutenen eskubide zibil eta politikoak ezabatzea eta ez diogu ukorik egingo gure gizartearen aniztasunak dakarren aberastasunari. Beso motz gaude, bertako bizilagun guztiok ez daukagulako planteamendu guztiak esan eta garatzeko askatasuna.

## JOSE LUIS ELKORO

AUZIPERATUA, ORAIN SA SUMARIOAN

### "Espainiako legeen barruan aritu izan gara beti"

Orain dela 29 urte Bergarako Udalean onartu genituen eskaera batzuk egitea, tartean Euskal Herriaren eskaera historikoak: lurraldetasuna eta autodeterminazioa. Eta urte hauetan zehar horren alde egin dugu borroka: Euskal Herriaren eskubide historikoen alde. Gure arbasoak borrokatu ziren bezala, guk ere lekukoa eta konpromisoa hartu genuen herriaren aurrean borroka horrekin segitzeko. Eta konpromiso horiei eusteko eta borroka horrekin jarraitzeko ez ditugu armak hartu, ez dugu borroka armatua erabili eta ezta lagundu ere. Gu Espainiako legeen barruan aritu gara gure borroka egiteko, eta ez ditugu lege horiek hautsi.

## NATALE LANDA

AUZIPERATUA, EKIN SUMARIOAN

### "Fidantza batzuk gehiegizkoak dira, astakeria hutsa"

Espetxe prebentiboaren gehiegikeriaz gain, fidantzena ere hor dago: sumario horren barruan dauden eta kalean dauden guztiak edo gehienak fidantzapean daude. Fidantza horiek gehiegizkoak dira, astakeria hutsa. Kasu batzuetan, gainera, Xabier Alegriaren kasuan, esate baterako, fidantza ezberdinak jarri zaizkie sumario berekoak izan arren. Badago printzipio unibertsal bat esaten duena gauza batengatik ezin dela pertsona bat behin baino gehiagotan zigortua izan. Kasu horietan, oso deigarria da sumario ezberdinetan akusazio beraren mende egotea eta epaituak izan daitezkeela. Jose Luis Elkororen kasua da hori. Hori legediak debekatu egiten du.

ANTZUOLA

## Udalak eskertu egin du herritarren jarrera ona elurte egunetan

Elurte egunak pasa ostean, Udalak herritarren jarrera eskertu nahi izan du. Izan ere, "antzuolarrek denboraleak sortutako gorabeherak konpontzeko laguntza eman dute".

Idatzi baten bidez, jakinarazi dute Udalak eskura dituen baliabide guztiak ipini dituela martxan. "Horrekin, eta herritarren laguntzari esker, arazoa normaltasunez gainditu da", esan dute.

Bide batez, adierazi dute elurte egunetan izan diren akatsak aztertuko dituztela hurrengo baten berriz gerta ez daitezen. /I.A.

ARAMAIO

## 'Berria' egunkariarekin lotutako auzia galdu egin du Udalak

Eguazteneko osoko bilkuran alkateak jakinarazi zuen epailearen sententziaren arabera bertan behera gelditzen dela Udalak *Berria* egunkariarekin egindako hitzarmena. Horren arabera, Udalak 500 euroko dirulaguntza eta 1.000 euro akziotan eman zizkion egunkariari. Laguntza hori justifikatzeko, Udaleko ordezkariek epaileari jakinarazi zioten, besteak beste, herritarren %80k euskaraz berba egiten dutela eta euskarazko egunkari bakarra dagoela. Baina epaileak ez zuen aintzat hartu. /U.M.

ELGETA

## Dantza saioa, kontzertua eta antzerkia Aratusteetarako

Aratusteak direla eta hainbat ekintza antolatu dituzte asteburuirako. Gaur iluntzean Oñatiko Oñatz dantza taldekoek kalejira egingo dute 20:00etan eta ondoren Luzaideko dantzak egingo dituzte plazan. Euria eginez gero, berriz, Espaloian. Bestalde, 22:30ean Zaldibarko Noise X eta Sibaris taldeek kontzertua eskainiko dute gaztetxean. Aratusteen aitzakian antzerki saioa ere antolatu dute. Zapatuan izango da, 17:00etan, Espaloian, *Piratek igandeetan jai* antzezlana. /I.A.




U.M.

ARRASATE

## Udalatxeko zulaketak gerarazteko ekimenak egiten dabiltza

Talde politiko, ekologista eta sindikatu ugarik bat egin dute Udalatxen defentsarako Arrasaten sortu den taldean: CCOO, LAB, ESK, Ahots Kooperatibista, Ezker Batua, Aralar, Zutik, Batasuna, Herri Anitza, gaztetxea, Segi, AHT Elkarlana, Ekologistak Martxan eta Besaide Espeleologia Taldeak. Besteak beste, mendian egiten dabiltzan zulaketen zilegitasuna zalantzan ipini dute; halaber, jakinarazi zuten zulaketak gerarazteko asmoarekin gutun bana bidali dizkietela alkateari eta Jaurlaritzako Ingurumen sailburuari. Eta erreferenduma egiteko sinadurak batuko dituztela. Era berean, salatu zuten Canteras Campanzar enpresaren asmoek aurrera egiten badute, mendi barruan sortu gura duten meategiak 1.059.000 m²-ko azalera hartuko duela, 165 futbol zelairen adinakoa. /U.M.

OÑATI

## Turismoa %18 hazi zen iaz; azken urteotako hazkunde handiena

Oñatin turismoak azken urteotako zifra onenak izan zituen 2004an; izan ere, aurreko urtearen aldean %18 hazi zen turismoa. Oso zifra esanguratsua, kontuan hartuta 2001a ezkero batez beste %10 igo izan dela. Guztira, 13.061 bisitari izan dira Oñatin 2004an.

Turismo Saileko arduradunen esanetan, hazkundearen arrazoiak dira, besteak beste, promozioa eta Unibertsitatean ipini duten Informazio Puntua. "Azpimarragarriak dira aurten atzerritik eta Estatutik etorri zaizkigun bisitariak", diote arduradunek. Normalean, atzerritarrak ekaina eta iraila bitartean egoten dira Oñatin; 2004an, berriz, maiatz aldera hasi ziren etortzen. Batik bat Frantziatik etorri dira (%29); baita Alemania, Italia, AEB eta Ingalaterratik ere. Estatuan, batik bat Kataluniatik (%24) eta Madrildik (%22) etorri dira. Oñatiarrek, berriz, urte osoan zehar erabiltzen dute bulegoko zerbitzua.

**NATURA ESKAINTZA INDARTU DA**

Turismo arduradunen balorazioa oso positiboa da: euren esanetan, Oñatiren Pizkunde izaerak gero eta jende gehiago erakartzen du; baina azken urteotan, natura turismoak, berriagoak, emaitza hobeak ditu urterik urte.

Etorkizunean, "2004an lortutako emaitzei eutsi edo hobetu egin nahiko genituzke", dio Turismo Sailak. Proiektu bat, adibidez, San Migel errota da, aurten bertan inauguratuko dutena. /LEIRE KORTABARRIA

**Zertzelada**

**Oñatiren Pizkunde izaerak jende asko erakartzen du, baina azken urteotan, natura turismoak emaitza hobeak lortu ditu**

BERGARA

## Osintxuko zubi zaharra konpontzeko proiektua egingo du Udalak

Udalbatzak LKS Ingeniaritzari agindu dio Osintxuko zubi zaharra eraberritzeko proiektu teknikoa, 5.800 euroren truke.

Osintxun egiten dihardute zubi berria zabalduko dute laster. Soraluce enpresaren aginduz, Altuna y Uria enpresak uztailean hasi zituen zubia eraikitzeko lanak. Amaitzear daude lanak, 1,2 milioi euroko aurrekontuarekin.

Orain, Osintxuko zubi zaharra konpontzeko konpromisoa hartu du Udalak. Zubia XVI. mendekoa da, eta nahiko egoera txarrean dago. LKS Ingeniaritzak idatziko du proiektu teknikoa hurrengo bi hilabeteotan, egin beharreko lanak zehazteko. /E.M.



ARTXIBOA

Osintxuko zubia XVI. mendekoa da, eta nahiko egoera txarrean dago.

ARETXABALETA

## Kulturan dagoen hutsunea betetzeko 700 mila euro gorde ditu Udalak

Aho batez onartu zuen Aretxabaletako udalbatzak aurtengo udal aurrekontua. 8.215.121 euro da, iazkoa baino %19 handiagoa. Inbertsioei dagokionez, kultura ekipamendurako gorde du diru partidarik handiena: 700 mila euro. Herriko plazan dagoen eraikina erabat berritu gura dute, eta bitartean Iralabarri plazan izango du egoitza Kultura Sailak. Iralabarriko lokalak egokitzeko ia 270 mila euro erabiliko dituzte. Otalora kaleko saneamendu lanak egiteko ere diru asko zehaztu dute: 610 mila euro. /M.A.

ESKORIATZA

## Kontzejupek bi testu aurkeztu zituen astelehenean osoko bilkuran

Astelehenean Kontzejupe herri plataformak bi testu aurkeztu zituen. AHTren kontrakoa udalbatzak bozkatu eta ez zuen onartu. Bigarrena "euskal preso politikoen estatus politikoa onartzeko" aurkeztu zutela eman dute aditzera. Testua onartu ez eta EA-EAJ koalizioak testu alternatibo bat aurkeztu zuen. Gatazka elkarrizketaren bidez konponduko dela eta gizarteko eragile guztiek parte hartzeko eskubidea dutela zioen testuak, besteak beste. Testua onartu eta plataformak bat egiten duela eman du aditzera. /Z.V.M.

LEINTZ GATZAGA

## Gazteentzako jolasak eta gauean afaria herritar guztientzat

Bihar Inauteriak ospatuko dituzte herrian. Arratsaldez mozorrotzeko ohitura dute. Izan ere, orduan hasten dira antolatutako ekintzak. Gazteen txanda izango da 17:00etan hasita. Herriko Plazan elkartu eta *altxorraren bila* arituko dira herrian zehar. Txikienentzat, berriz, pilotalekuan egiteko hainbat jolas prestatu dituzte.

Gauean, gazte eta helduak Garro jauregira hurbilduko dira Inauteriko afariaz gozatzeko, 21:00etan. Ondoren, dantzaldia izango dute. /Z.V.M.

# Gutunak

## Eskerrik asko

Elurra mara-mara ibili zaigu egun hauetan, eta horrek ahazturik genuen zertxobait ekarri digu gogora. Urtarrilaren 5ean elurrik egin ez bazuen ere, Gabon giro politean Errege Mago-en Kabalgatak herriko kale eta txokoak ilusioz eta gozokiz bete zituen. Horren guztiaren atzetik lanordu eta boluntario ugari izan ziren.

Argi dago, hauek guztiak aipatzeak luze joko zigula eta, azken finean, gure nahia hitz hauekin zuei guztioi eskerrak ematea besterik ez da. Mila esker, beste urte batez Arrasateko haur, gazte eta helduen bihotzetara heltzen lagundu diguzuelako. Begi bistan gelditu da herriak bat egiten duenean eta nork bere apurtxoa jartzen duenean, elkarrekin, gauza handiak egin ditzakegula. Benetan polita litzateke bizi izan genuen azken momentuko laguntza besarkada hura herriko gainontzeko ekintzetara zabaltzea, guztiaren gainetik. Eskerrik asko, Arrasate!

ERREGE MAGOEN KABALGATA
ANTOLATZEN DUEN KOMISIOA
Arrasate

## Babestu ingurumena

Gaur egungo zeru zabaleko harrobiaren alternatiba gisa, Udalatxen kareharria erauzteko lurrazpiko meategi bat egiteko balizko aukera dela eta, zera adierazi nahi dugu:

1. Lurralde-Antolamendurako Araudi Nagusiari gainbegiratua:

LAGak (Lurralde-Antolamenduko Gidalerroak) dira gainerako antolamendu-bitartekoak formulatzeko erreferentzia-marko orokorra, bai eta jarduera ekonomikoak lurraldean kokatzeko prozesuak orientatzen eta arautzen dituzten irizpide eta arau guztiak biltzen dituen bitartekoa ere.

Udalatxeko harrobiari dagokionez, LAGen bi arlo azpimarratu behar dira:

- 5.3 puntuko "Jardueren kontrolari buruzko arau orokorrak", B atalean, Harrobiak egin daitezkeen eremuetako Lurraldearen Arloko Plana sortzeko beharra jasotzen du, sor daitezkeen zeru zabaleko kokapenak zonifikatzeko, betiere erauzte-jarduera horiei tratamendu homogeneoa emateko erreferentziazko marko gisa.

- 7.A puntuan, interes naturalistikoko espazio batzuk zehazten dira, bertako balioak kontserbatzeko helburuz. Baso klimazikoko eremu adierazgarriak dira, itsasoko eragina duten ekosistemak (dunak, padurak, itsaslabarrak, uharteak eta estuarioak), barrualdeko hezeguneak, harkaiztiak, ibaien ibilbideak eta zuhaixka klimazikoak. Horiek guztiak interes handiko espazioak dira EAEn; gainera, oso ahulak izan daitezke, oso hedapen txikikoak direlako eta inguruetako erabilerek kalte egin diezazkiekeelako. Interes naturalistikoko eremu horien barruan dago Udalatx.

Debagioeneko Lurraldearen Arloko Planaren xedapenak:

- Memoriaren 3. Puntuan, lurraldea kategorizatzen den ataleko 1.1. puntuan, natur gune babestuen barruan azaltzen da Udalatx (LAParen baitako garrantzi handienekoan); paisaia, geologia, fauna eta botanika balio handiko lurralde multzotzat hartzen delako.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Zaintzeari buruzko Legeari errepasoa. Lehen artikuluan dio "herritarrek baliabide naturalak ordenaz erabiltzeko" beharra bermatu behar dela "espezieen eta ekosistemen aprobetxamendu iraunkorra bermatuz, bai eta leheneratzea eta hobetzea ere". Interes geologikoko guneak zaindu behar direla ere jasotzen du.

Bestetik, EAEko 2002-2006 Ingurumenaren Esparru programaren 3. helburuan (Natura eta Biodibertsitatea Zaintzea) dio ingurumen-eragin handiko paisaia degradatuak (bertan behera utzitako harrobi eta hondakindegiak, mehatze inguruak…) urtero-urtero leheneratzeko jarduerari eutsi behar zaiola; lurralde orekari buruzko 4. helburuan, berriz, honela dio: 2004 urterako, harrobietako ustiatzaileek bere gain hartutako abalen bidez bermatu behar dute eragindako ingurumen inpaktu guztiak zuzendu behar dituztela, eta leheneratze-planak bere osotasunean gauzatzera behartzen ditu.

Azken bi aipamen horiei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 20ko Erauzketa-jarduerek kaltetutako naturguneak leheneratzeari buruzko 115/2000 Dekretuaren 2. artikuluak honela dio: "1973ko uztailaren 21eko Meategien Legearen araudiari jarraiki baliabide mineralen aprobetxamendua egiten dutenak behartuta daude meategi-jarduerak kaltetutako ingurunea leheneratzera", eta dekretu beraren 4. artikuluak hau jasotzen du: "leheneratze-lanak ustiaketa lanetara egokitu beharko dira, bai espazioari bai denborari dagokionez, eta oro har, ahalik eta denbora tarte txikiena igaro behar da ustiaketaren eta agortutako eremuen leheneratzearen artean.

Beraz, ondorio gisa hau azpimarratu nahi dugu:

1. Harrobiak egin daitezkeen eremuetako EAEko Lurraldearen Arloko Plana egitea eskatzen dugu. Erakundeetatik etengabe ari dira garapen iraunkorrari buruzko mezuak ematen, tokiko agenda 21i buruzkoak eta abarrei buruzkoak. Baina, hala ere, egun ez dugu ingurumen-inpaktu handienetakoa eragiten duen sektoreari buruzko Arloko Planik, betiere herritarrek baliabide naturalak ordenaz erabiltzeko, eta beharrak guztien artean adostu ondoren, ingurumen inpaktu txikiena eragingo duten kokapenak eta ustiapen moduak bilatzeko.

2. Udalatx mendigunea, ingurune natural babestua da, interes naturalistiko handia duelako; hain zuzen ere, Debagoieneko Lurraldearen Arloko Planaren arabera paisaia, geologia, fauna, botanika eta hidrologia-balio handiko lurralde multzotzat hartzen da. Arrasateko Udalak aintzat hartu beharko luke Lurralde Antolamenduko Gidalerroak eta Lurraldearen Arloko Planak diotena eremu horretan ezaugarri horietako jarduerak baimentzerakoan, baina baita Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Industria Sailek ere. Izan ere, agian, proposatzen den alternatiba da paisaia inpaktu txikiena eragiten duena, baina hori ez da ingurune honetan kontuan izan beharreko ingurumen-alderdi bakarra.

3. Salatu beharra dago ez Udalak ez eta Jaurlaritzak ere ez dutela harrobi-jarduerako eremuak berreskuratzeko araudia betetzen, gaur egun, zeru zabalean ustiatzen ari den harrobian araudiak zehazten dituen neurriak ez direlako betetzen; hori dela eta, Ingurumen Esparru Programak degradatutako eremuak berreskuratzeko zehazten dituen helburuak ere ez dira betetzen.

4. Ezin dugu ahaztu honen guztiaren atzean Abiadura Handiko Trena datorkigula.

DEBAGOIENEKO ARALAR
Debagoiena

## Europako erreferenduma

Euskal herritarra naizen heinean, eskubideak urratuak ditut. Estatu espainiarraren baitako biztanlea izatera behartu naute, inoiz ez didate aukeratzeko biderik eskaini Nafarroako edo Baskongadasetako zein Ipar Euskal Herriko aberri kide guztiei bezala inposizioaren bitartez ukatuak gara.

Gure herria ez dago aitortua, ez dago errespetatua; alderantziz, zapaldua eta zatituta dago, bi estatu zapaltzaileren menpean bizi gara.

Europako Itun edo Konstituzio honek ez du gure herria aintzakotzat hartuko. Ez dio errespetatuko bere buruaren jabe izateko duen eskubidea: autodeterminazioa.

Nola uler daiteke EAJren jarrera hipokrita? Nola eska dezakete aldeko bozka? Ibarretxe planaren bigarren zatia al da hau?

"Europako Konstituzioak ez ditu Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatuko; autodeterminazio eskubidea ez du errespetatuko; euskaldunok frantziarrak eta espainolak izatera kondenatzen gaitu; beraz, otsailaren 20an esan bai Europako Konstituzioari".

Hau da hau errealitatea aldatzeko modua. EAJren interesak euskal oligarkiaren interes berberak dira, bi zutabe estrategikoak ditu: boterea eta dirua.

"No estamos para aventuras soberanistas", esan zuen EAJko buruak; horren aurretiko beste buruak "nuestro objetivo es estar comodos en España" esan zuen.

Horra hor ba hipokresia eta zinismo ariketa praktikoa. Beraz, Euskal Herriaren eskubideak bermatzen ez dituelako, 20an esan ozenki: ez, Europako erreferendumari.

AITOR GOITI ALKORTA
Bergara

## Korrika 14

AEK buru-belarri ari da Korrika antolatzen. Euskara eta gure kultura bultzatzeko Euskal Herri osoan egiten den ekimen erraldoia. Aurten martxoaren 10etik 20ra zeharkatuko du Euskal Herria eta martxoaren 16an izango dugu gure bailaran. Horren aurretik, ordea, lan asko dago egiteko: Korrika Kulturaleko ekimenak (dagoeneko prestatzen ari gara) eta AEK-k lanean jarrai dezan beharrezkoak dituen diru sarrerak lortzen.

Gaurkoan bigarren horren berri eman nahi dizuegu. Nola lagun dezakete herriko elkarteek, ikasleek, irakasleek, komertzioek, eta abarrek AEK eta korrika diruz?

1. Kilometroak erosten. Bereziki elkarte kultural, ikastetxe, lantegi, eta abarrentzat prestatua dago. Kilometroa erosi eta Korrika pasatzen den egunean korrika eginez. Salneurria 320 eurokoa da eta erosteko 943 77 03 69 telefonora deitu behar da, Arrasateko AEKra.

2. Korrika laguntzaile eginez. Norbanako guztientzat prestatua dago, 12 euroren truke ehunka komertzio, zinema, eta abarretan merkealdiak izateko aukera ematen duen txartela eta PINa da. Berau lortzeko, eskualdeko euskara elkarteetara jo besterik ez dago (Jardun, Axtroki, AED, Loramendi, Laixan, etab.), gainera, hainbat ikastetxe, lantegi eta tabernatan ere izango da salgai laster.

3. Korrika laguna. Herriz herri denda eta tabernetatik pasatuko gara Korrika laguna kanpaina egiteko. Nahi duten dendari eta tabernariek nahi besteko dirulaguntza eman eta korrika lagun gisa identifikatzen dituen txarteltxoa emango zaie.

Oso-oso garrantzitsua da AEKrentzat dirulaguntza horiek lortzeko kanpaina ongi ateratzea, eta komunikabideek asko lagun diezagukezue horretan. Ahal baduzue hurrengo egunetan tarte txukuna eskaini arlo honi. Informazio gehiago edo beste edozer behar baduzue deitu 943 77 03 69 telefonora (arratsaldez) edo bidali mezu bat. Eskerrik asko.

DEBAGOIENEKO AEK
Debagoiena

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aralar alderdiak apirileko hauteskundeetarako duen Bizkaiko zerrenda-burua da Joseba Azkarraga Etxagibel. Abadiñokoa da eta HUHEZIn dihardu irakasle. Aralarrek egungo egoera nola ulertzen duen azaldu digu.

OIHANA ELORTZA



OIHANA ELORTZA

# *Joseba Azkarraga*

ARALARREN BIZKAIKO ZERRENDA-BURUA

# "Aralarren planteamendu politikoak inoiz baino indartsuagoak dira une honetan"

## BATASUNAREN ETA PSOE-REN PROPOSAMENAK

**"Bien diskurtso politikoak berdinak dira. Markagailua zeroan jartzeak, ordea, ez du eramango Batasuna edozein paktu politiko oraingo proposamenaren azpitik dagoen tokira?"**

## BAKEAREN GERTUTASUNA

**"Bakea inoiz baino gertuago egon daitekeela dirudi, baina, bestetik, oraintxe jarri dute abian 18/98 sumarioa. PSOEk barrutik hutsik dagoen oskolaren irudia du"**

**Apirilaren 17an izango dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Zer iruditzen zaizu eguna aurreratu izana?**

Guretako, orain ez da momentua hauteskundeetan zentratzeko. Bide politiko luzeagoetan pentsatzen hasi beharko genuke. PSOEk esan du bere jarrera politikoa estatutuaren erreformatik joango dela, eta ez beste inongo bidetik. Beraz, hauteskundeetan baino gehiago, jarrera itxi horren aurrean zer egin dezakegun pentsatzen hasteko garaia da orain. Eta, gure ustez, autodeterminazioaren indar politikoek topatu egin beharko lukete biderik estrategia bateratua egiteko. Martitzenean Madrilen ikusi genuen bat eginda daudela bi indar nagusiak Espainiako subiranotasun nazionalaren inguruan. Gainera, euren artean ez zen aparteko liskarrik egon, ondo zaindu zuten alderdi hori. Hori dela eta, pentsatu beharko dugu subiranotasunaren aldeko indarrak noiz, nola eta zertarako batu. Eta, seguru asko, ezker subiranotasuna indartzea izango da bidea. Aralarrek bere sorreratik hauxe du helburu: ezker abertzale zibil, zabal eta bateratua batzea.

**Aralarrek atera ditu dagoeneko zerrenda-buruak. Hauteskundeetarako prestatzen?**

Alderdi guztiak dabiltza aspalditxotik aurre kanpaina egiten; asko iaztik hona dabiltzala esango nuke. Baina oso interesgarriak izango dira.

**Lehenengo inkestek eserleku bat ematen diote Aralarri Gipuzkoan. Finkatuta dagoen alderdia da?**

Aralarren planteamendu politikoak inoiz ez dira izan hain indartsuak gaur egungo euskal eszena politikoan. Ezker abertzale osoak bere egin ditu Aralarrek duela hiruzpalau urte egindako planteamendu politiko nagusiak. Horren harira, Aralarrek planteatzen duen ezker abertzalea da hain justu gaur aspaldiko partez nabaritzen den ezker abertzalea, adierazpen ezberdinetan. Eta hori oso kuriosoa da. Aralarren planteamendu politikoak inoiz baino indartsuagoak dira une honetan, baina, aldi berean, Aralar estruktura politiko bezala indartzeke dagoela esango nuke. Eta horixe da datozen hauteskundeetako asmoetako bat.

**Zeintzuk dira zuen helburuak?**

Hiru ardatz nagusi ditugu: bakea, burujabetza eta subiranotasuna eta ezkerra. Burujabetzari dagokionez, gure aukera politikoa euskal erabaki esparrua defendatzea da. Badugu beldur bat: hauteskundeak pasa eta gero EAJ erreforma estatutarioaren bide horretatik sartzea. Gu planteamendu garbi batekin joango gara: Planak subiranotasunaren aldetik duena bermatzea.

Eremu abertzalean ezker-eskuin dialektika berreskuratzeko garaia ere bada. Guk, Euskal Herria eraiki nahi dugu ezker ikuspegitik eta politika aurrerakoiekin.

**Plana bera defendatzen duzue, nahiz eta hutsuneak edo akatsak ikusi.**

Ibarretxe Plana zenak hutsune nabarmenak zituela ikusi genuen hasieran; adibidez, euskarari ematen zaion tratamendua. Guretako ez zaio batere tratamendu duinik ematen eta ez da ezer aurreratzen Gernikako Estatutuarekin konparatzen badugu. Ezker hanka bat ere falta zaio Plan horri. Beste alde batetik, Ibarretxek inoiz ez du martxan jarri aliantza seriorik. Hutsuneak ditu, era berean, demokrazia parte-hartzaile ikuspegitik; herri kontsultak aldarrikatzea oso ondo dago eta horren aldekoa izango da beti Aralar, baina beste hainbat gairen inguruan ere egin daitezke herri kontsultak: AHTren, Boroako zentral nuklearraren eta beste hainbat *makroproiekturen* gainean, adibidez.

Hala ere, aldi berean egia da Plan horrek subiranotasun eduki bat duela eta beste irakurketa bat onartzen duela. Nahiz eta orain Estatua modu librean bat egiteko hautu politikoa hartzen den, aukerak zabalik gelditzen dira aurrerantzean gizarteak beste erabaki bat hartzeko. Guretako, gertaera historiko honetan horixe da lortu beharrekoa termino politikoetan, eta, beraz, iruditzen zaigu neurri horretan defendatu beharreko Plana dela.

Ez dugu oso ondo ulertzen Batasunaren eta PSOEren diskurtso politikoen arteko kointzidentzia hori. Hori ez da posible, eta baten bat oker dabil. Guk diogu markagailuak zeroan jartzeko eta zerotik hasteko berriro. Batasunari egiten diogun galdera da markagailua zeroan uzteak ez ote dituen eramango eszenatoki batera, non edozein paktu politiko Legebiltzarrak onartutako proposamenaren azpitik gelditzen den.

**Bakea inoiz baino gertuago dago?**

Azken boladan aurrerapauso inportanteak gertatu dira, eta hori arnastu egiten dugu gizartean. Debate politikoa agertu da eta biolentzia bigarren mailara igaro da, hainbat bake proposamen daude mahai gainean, eta denen arteko integrazioa bilatu beharko litzateke. Denen partehartzea beharko luke bake prozesuak, ikusi delako aurreko saiakerek ez dutela aurrera egin alderdi bat edo beste kanpoan gelditu delako. Parte-hartze hori, gainera, berdintasunean egin beharko litzateke, eta, beraz, aukera politiko guztiak legeztatzea behar-beharrezkoa da.

Hala ere, alde batetik bakea inoiz baino gertuago egon daitekeela dirudi, baina, beste aldetik, oraintxe jarriko dute abian 18/98 sumarioa. Beste ziklo errepresibo baten aurrean gaude, eta, horren harira, hori ez da bake bidea, gerra bidea da.

**PPren politika jarraitzen du oraindik PSOEk?**

Horregatik diot barrutik hutsik dagoen oskola aproposa dela PSOEren *talantea* irudikatzeko. Debate politikoan aurrerapausoak bai, baina dirudienez ez dute ondo zentratzen. Gainera, bakea eraikitzeko bidean ikusten da Estatuak martxan jarri dituela bere mekanismoak errepresioari beste buelta bat emateko.

**Zergatik esaten diozue ezetz Europako Konstituzioari?**

Aurka ezkerretik eta aurka nazio eta herri ikuspegitik. Ez da konstituzio bat, estatuen arteko tratatu bat baizik, eta oso jarrera neoliberaleko Konstituzioa da. Gainera, subjektu bakarra dago, Estatua, erregioei ez zaielako aitortzen parte-hartzerik, eta etorkizunetik urruti jartzen gaitu. EAJk dio zenbat eta Europa gehiago dagoenean orduan eta Espainia gutxiago egongo dela, baina nik ez dakit alderantzizkoa ez ote den gertatuko. Eskubide sozialetan ere atzerapausoa da eta immigrazioaren inguruan eta bestelako gaietan ere oso atzerakoia da. Etorkinak, adibidez, 20 urte bizi ahal izango dira Europan, baina ez dira europarrak izango.

**Nolako harremana duzue orain Batasunarekin?**

Esango nuke harremana lasaitu eta hobetu ere egin dela neurri handi batean. Denbora ere pasa da eta elkar-ulertze eta aitortze fasean sartu gara. Egia da oraindik konplikatuak direla harremanak, zauri batzuk zabaldu direlako egin eta esan diren gauza potolo askorengatik, baina nik uste dut bide onetik doazela. Nahiko harreman egonkorrak ditugu, periodikoak, eta inoiz baino fluidoagoak dira.

**Zer iruditu zitzaizun Rodriguez Zapateroren jarrera Ibarretxe Planaren bozketan?**

Espainiako Gobernuan ez dago eskuin muturra, eta martitzenean ikusi zen hori. Politikan garrantzitsua da tonu egokia izatea, eta uste dut Zapateroren *talantea* bide horretatik doala. Hala ere, jarrera hori azalekoa bakarrik ote den susmoa dut; hau da, barrutik nahiko hustua egon dela orain arte behintzat. Hala ere, PSOEren ahotik entzundakoak lehengo gobernuak zioenaren antza zuen; argi utzi zuten burujabetza eta subiranotasuna non datzan eta nork duen erabakitzeko ahalmena. Argi esan zuen inoiz ez duela onartuko euskal subiranotasun terminoetan datorren inongo proposamenik.

# Asobal Ligako Teka Kantabria eta Bidasoa Irun, Kilometroen alde

## Maila goreneko eskubaloi partidua jokatuko dute, bihar, Iturripen

XABIER URTZELAI

**Kilometroak jaiaren barruan kirol ekitaldi ikusgarria antolatu du Arizmendik. Bihar, zapatua, Iturripera hurbilduko direnek (18:00etan) Estatu mailako eskubaloi onenarekin gozatu ahal izango dute. Ziurtatuta dago ikuskizuna.**


ARGAZKIPRESS

Asobal Ligako lehenengo itzulian, Teka Kantabriak 24-21 irabazi zion Bidasoa Irun taldeari.

Kilometroekin bat egiteko aitzakiarekin— eta aitzakiak balio du —, eskubaloia atsegin dutenek galdu ezin duten hitzordua dute bihar arratsaldean Iturripeko kantxan. Eta kirol horren jarraitzaile amorratu ez direnek eta beste plan bat daukatenek hobe dute birritan pentsatu, damutuko dira, bestela. 18:00etatik aurrera Allianz Asobal Ligan dabiltzan bi talde izango dira Arrasaten: Teka Kantabria eta Bidasoa Irun, hain zuzen.

**EGUTEGIAN TARTEA**

Luxua da Ibarrean horrelako norgehiagoka ikusi ahal izatea. Alde horretatik, Arrasate Eskubaloi Taldeko Andoni Arandok aitortu digu lagunarteko partidu hori antolatzeko zortea izan dutela: "Arrasateko taldean bagenuen horrelako eskubaloi partidu bat antolatzeko asmoa. Arizmendikoek proposatu ziguten Kilometroen alde horrelako ekitaldi bat antolatzea, eta Athlonekoekin batera hasi ginen lanean. Egia esan, zorte handia izan dugu. Batetik, oraingo asteburuan beheko kategoriatan deskantsua daukagu, eta badakit inguruko eskubaloi taldeetako jokalari asko etorriko direla. Horrez gain, orain momentuan eskubaloi selekzioak Tunezen daudenez, Munduko Txapelketa jokatzen, Asobal Liga geratuta dago. Hala, Tekari eta Bidasoari lagunarteko norgehiagoka antolatu gura genuela esan genienean ez zuten trabarik jarri, komeni zaie-eta erritmoa ez galtzeko horrelako partiduak jokatzea".

> **"Munduko Txapelketa dela-eta Asobal Liga geratuta dago. Horregatik etorri ahal dira Teka Kantabria eta Bidasoa Irun Arrasatera"**

> **Norgehiagoka ikusteko euro bat ordaindu beharko da. Sarrerak aurrez erosi gura dituenak Kilometroen dendan izango ditu**

Bi talde horiek datorren astean ekingo diote txapelketari, eta ez daude loak hartzeko moduan, nahiz eta sailkapenaren erdialdean egon: "Zortzigarren postuan dago Teka Kantabria, eta puntu bat gutxiagorekin dago Bidasoa Irun".

Norgehiagoka ikusteko euro bat ordaindu beharko da. Sarrerak aurrez erosi gura dituenak Kilometroen dendetan izango ditu. Bestela, bihar bertan Iturripeko leihatilan erosi ahal izango dituzue.

## *Kirolabur*

**MENDIKO LASTERKETAK/**AURKEZPENA

Gaur goizean aurkeztu dute Donostian Euskadiko Mendiko Lasterketetako Selekzioa. Eta selekzio horretan daude lau debagoiendar: Asier Urdanpilleta eta Joxe Mendiola oñatiarrak, eta Isa Casado eta Zuhaitz Ezpeleta arrasatearrak.

**MENDIA/**JUANITO OIARTZABAL OÑATIN

Oñatin izango da gaur, egubakoitza, 19:30ean Juanito Oiartzabal. Zortzimilako guztiak egin dituen mendizaleak gorriak ikusi zituen Edurne Pasabanekin batera K2n, eta igoera horren gaineko emanaldia egingo du kultura etxean. Sarrera doanekoa izango da.

**ESKUBALOIA/**ARRIKRUTZ HONDARRIBIARA

Lehen Nazional Mailan dabilen Arrikrutz Oñatiko Kobak taldea Hondarribiara joango da bihar arratsaldean. 17:30ean jokatuko dute norgehiagoka; taldea animatzera joan gura duenak, jakin, 15:00etan izango dela autobusa, Correosen.

**SKATEA ETA PATINAJEA/**IKASTAROA

Debagoieneko kirol zerbitzuek skate eta patinaje ikastaroak antolatu dituzte otsailerako eta martxorako. Ikastaroak Aretxabaletan egingo dituzte, zapatuetan; hastapen eta hobetze mailakoak izango dira. Interesatuok deitu 943 71 26 28 edo 943 77 91 67 telefono zenbakira.

**SASKIBALOIA/**MUGARRI ALKESA

Musakolan jokatuko dute oraingo asteburuan Mugarri Alkesakoek (zapatuan, 18:00etan). Kontrario gogorra izango dute, laugarren postuan dagoen Bidegintza Zalla taldea, hain zuzen. Zurututzaren mutilak, baina, bolada onean dabiltza, ezusteko ederrak ematen.





BAZAR TXINATARRA

Ireki berria!

**Eskaintza zabala:**
- liburuak
- koadroak
- garbiketarako produktuak
- dekorazioa
- burdineria
- drogeria
- jostailuak
- osagarriak
- eta abar

**Zatoz eta gure eskaintzaz goza ezazu!**

**Ordutegia, astelehenetik igandera:**
09:30etik 14:30era
17:00etatik 21:00etara

**BAZAR TXINATARRA**
Olarte kalea 35, ARRASATE

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

**Talde osoa emakumearen eskura:**

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo

**Antzutasuna**
**Erditzeak**
**Antisorgailuak**
**Menopausia**
**Ekografiak (4D)**
**Titietako gaixotasunak**
**Minbiziaren diagnostiko goiztiarra**
**Hezur dentsitometria**

Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17, behea**
**Tel.: 943 79 20 18**

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88



gasteizon
centro comercial abierto
merkataritza-gune irekia

GASTEIZEN HITZORDUA DUZU
www.gasteizon.com 2005EKO OTSAILAREN 4tik 10 arte

Florida Guridi
CINES ZINEMAK

*CINES GURIDI ZINEMAK*
*"LOS PADRES DE EL" (ESTREINALDIA)*
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10:30
*"ELEKTRA"*
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10:30
*"MIERCOLES DE CENIZA" (ESTREINALDIA)*
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10:30
*"ENTRE VIVIR Y SOÑAR"*
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10:30
*"CLOSER"*
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10:30
*"RAY"*
OSTIRALETIK IGANDERA: 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30-8,30
*"EL AVIADOR"*
ASTELEHENETIK LARUNBATERA: 6 y 9,15
IGANDEAN: 5 y 8,30

zinea

Florida Guridi
CINES ZINEMAK

*CINES FLORIDA-GURIDI ZINEMAK*
*"MILLION DOLLAR BABY"(ESTREINALDIA)*
OSTIRALETIK IGANDERA: 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30-8-10,30
*"LA MEMORIA DE LOS MUERTOS"*
OSTIRALETIK IGANDERA: 8,30-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 8,45-10,45
*"ALEJANDRO MAGNO"*
OSTIRALETIK IGANDERA: 5
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30
*"LA VIDA ES UN MILAGRO"*
OSTIRALETIK IGANDERA: 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30 y 8,30
*"LARGO DOMINGO DE NOVIAZGO"*
OSTIRALETIK IGANDERA: 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30-8-10,30
*"SOLO UN BESO"*
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30
*"LOS CHICOS DEL CORO"*
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30
*"CONVERSACIONES CON MAMA"*
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30

zinea

Kultur Agenda

*OTSAILA*
*OTSAILAK 10 Osteguna*
ANTZERKIA: "El rey Lear"
20:30. Printzipal Antzokia

*ARTIUM*

*DATOZEN INAUGURAZIOAK*

*MARINA ABRAMOVIC*
Otsailaren 13tik maiatzaren 8ra

*GAUZEN EGOERA. ARTE-OBJEKTUA 1960TIK GAUR ARTE*
Otsailaren 3tik maiatzaren 22ra

*LEHENDIK IKUSGAI DAUDEN ERAKUSKETAK*

*DALIREN AZTARNAK*
Otsailaren 27 arte

*NORABIDEK. BILDUMA III.*
Otsailaren 13 arte

kultura



# EGIN TXOTX! sagardotegietan



## Aulia

Aulia Enea baserria / LEGORRETA
943 80 60 66

- Abendutik maiatz bukaerara arte zabalik.
- Bertako janaria.
- 110 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- **"Tolare" sagardotegia**



## Gurutzeta

Oialume bidea 63 / ASTIGARRAGA
943 55 22 42

- Urtarriletik apirilaren 16ra arte zabalik
- Urte osoan sagardoa botilan salgai
- Janaria eraman daiteke
- Zutik jateko sagardotegia
- Eguenetan 18 eurotako menua
- Eguaztenetan "Asteazkena kantuz" otxote taldea



## Iparragirre

Iparragirre baserria / HERNANI
943 55 03 28

- Zutik edo eserita
- Eguaztenetik zapatura gauez bakarrik
- Zapatu eguerdietan zabalik
- Sagardoa botilan saltzen da
- Autobusak aparkatzeko tokia gordetzen dugu
- "Zabadiz" banatzaile ofiziala
- **"Tolare" sagardotegia**



## Iturrieta

Iturrieta baserria / Arraga auzoa
ARAMAIO / 945 44 53 85

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegi garaian, sagardotegiko menua
- Etxeko sagardoa Debagoieneko sagarrekin egina
- Ziburuak umeendako
- Bertako janaria
- 100 lagunendako lekua, eserita edo zutik



## Ixaun

Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50

- Egubakoitzak, zapatuak eta domekak zabalik
- Sagardotegiko menua
- Baserriko oilaskoa eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- Martitzen eta eguaztenetan itxita
- 55 lagunendako lekua



## Elutxeta

Elutxeta baserria / URNIETA
943 55 69 81

- Apiril bukaerara arte zabalik.
- Aste barruan egun osoan txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- **"Tolare" sagardotegia**



## Rezola

Ipintza baserria / ASTIGARRAGA
943 55 66 37

- Urte osoan egunero zabalik igande gauetan izan ezik
- Enkarguz: Arkumea eta txarrikumea burduntzira eta arraina parrillan
- Berritua eta handiagoa
- Zabalik: Aste barruan iluntzean, zapatuetan egun osoa eta igandetan eguerdian.
- **"Tolare" sagardotegia**



## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia / HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailao kazuelak, aurrez deituta
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik
  Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
  Domeketan, eguerdira arte zabalik
  Astelehenetan, itxita
- **"Tolare" sagardotegia**



## Zabala

Garagartza baserria / ADUNA / (Andoain eta Billabona artean) / 943 69 07 74

- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz bakarrik.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako III. Sagardo lehiaketako irabazlea
- **"Tolare" sagardotegia**

Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko otsailaren 4a

Kultura eta aisialdia

Otsailaren 4tik 11ra



# Kultura, 'made in' Debagoiena

**Euskara eta kultura gaiak ikusi, ukitu eta gozatzeko produktu bihurtzea: hori da ibarreko talde baten lanbidea**



Euskal Herri osoan, eta baita kanpoan ere, jendeak bisitatzen dituen erakusketa garrantzitsuenetariko batzuk Debagoienean antolatu eta sortutakoak dira. Baita beste kultura ekimen batzuk ere: azokak, liburu edizioak, antzerki eta musika zikloak… Euskal Herriko diputazioek, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak eta gureko eta kanpoko hiriburutako udalek nora eta Debagoienera jotzen dute askotan euren kultura produktuak egiteko.

Kulturaren eta euskararen inguruko gai abstraktuak jendeak bereganatzeko moduko produktu egitea da debagoiendar talde baten lanbidea. Hori egiten hasi zen, zaletasunaren poderioz, arrasatear bat, Enrique Foronda, orain 12 urte; eta zaletasuna lanbide bihurtu zuen gerora, Hurbil Kulturgaiak enpresa sortuta. Ordutik hona, debagoiendar talde txiki horrek bide handia egin du, eta Debagoiena kultura sormen gune bihurtu dute. /14

LEIRE KORTABARRIA







AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIAK: HURBIL KULTURGAIAK

SORMENA/ IBARREKO ENPRESA BATEK PRODUKTU KULTURALAK EGITEN DITU

# Kultura gaiak, produktu bihurtu

ERAKUNDE HANDIENDAKO ERAKUSKETAK, LIBURU EDIZIOAK, EKITALDIAK… ANTOLATZEN DITU ARETXABALETAKO HURBIL ENPRESAK

LEIRE KORTABARRIA

**Euskal Herrian eta Espainiako leku batzuetan ehunka lagunek erabiltzen dituzten kultura produktu asko sei laguneko lantalde batek egiten ditu Aretxabaletan. Euskalkien historia, mahasti laborantzaren kultura, etnografia eta halako gaiak produktu bihurtzea da euren lana.**



HURBIL

Gasteizko Antzerki Jaialdiaren 25. urtemuga zela eta, *25 urte agertokian* erakusketa muntatu zuten 2000. urtean.

Lanpetuta dabiltza Aretxabaletako Hurbil Kulturgaiak enpresakoak egunotan. Izan ere, ia gertu dute Lazarragaren eskuizkribuaren, euskarazko testu zaharrenaren, gaineko erakusketa bat. Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatu die. Horrelako gai garrantzitsu eta abstraktu bat erakusketa zelan bihurtu ez da beti gauza erraza, baina eurak gustura dabiltza: “Dinamika hau gustatzen zait”, dio Hurbileko sortzaile Enrique Foronda arrasatearrak.

Esperientzia, behintzat, badu. Orain 12 urte sortu zuen Hurbil. Batik bat, erakusketak egiten dituzte, baina ez hori bakarrik: beste produktu batzuk dira liburu edizioak, azokak, zikloak, antzerki eta musika emanaldiak… Gai aldetik ere, denetarik landu izan dute. Hasieran, euskararen inguruko produktuak egiten zituzten; gero, euren esparrua zabaldu egin da, batez ere Euskal Herritik kanpo lan egiten hasi zirenean. Kultura produktuak egiten dituen enpresa bakarrenetakoa dugu; Debagoienean, bakarra, eta Euskal Herritik kanpo lan egitea ere bere berezitasuna da. Euskal Herri osoan egiten dute lan; batez ere, Hegoaldean, eta Errioxan ere bai.

**URTEAN 100 ERAKUSKETA**

Enrique Forondaren zaletasun batetik abiatu zen lantalde hori. Aurrezki kutxa baten lan egiten zuen, eta hainbat kultura ekintza egitea egokitu zitzaion. 1992ko Expo azokan, Euskadiren pabilioiaren eduki zuzendaria izan zen. Arra sartu zitzaion orduan. Hurbil sortu zuen, eta familiakoek osatzen dute.

Euren izena ez da behar bezain sarritan produktuokin batera agertzen, baina lan eskerga egiten dute: “Urtean 100 erakusketa inguru muntatzen ditugu. Horietatik 15 bat berriak izaten dira”, dio Forondak. Estatu osoan ezagun diren artisten kontzertuak, antzerki saioak… ere antolatzen dituzte: Arabako Foru Aldundiak eskatuta, udan 14 kontzertu antolatu zituzten. “Batik bat Eusko Jaurlaritzarendako, Nafarroako Gobernurako, diputazioendako eta aurrezki kutxendako egiten dugu lan. Eurek gaia ematen digute eta produktua eskatu”, gaineratzen du.

Horren ondoko pauso guztiak eurek eman behar dituzte. “Ordura arte egin diren ekintzen berri jaso, adituak bilatu… Dokumentazioa da gakoa”, dio Enrique Forondak. Lazarragaren gaineko lanaz gain, egunotan Einsteinen ingurukoa egiten ari dira Kutxaespacio museoarendako; baita txakolinaren inguruko beste bat, Bizkairako.

**ETXEAN, OSO GUTXI**

Baina, errementariaren etxean, zotza burruntzi: geurean gutxitan egin izan dute lan. Salbuespenak ere badaude: Arantzazuko frantziskotarren bosgarren mendeurrenaren gaineko erakusketa, adibidez, eurek egindakoa da; baita Oñatin egon zen hegazkingintzaren historiaren inguruko erakusketa edo Aramaioko Udako Ikastaroak ere. Horrez gain, Abbadia Sariko ekitaldiak antolatzeaz ere arduratu izan dira.

“Debagoienean ia ez dugu lanik egiten, ez”, onartzen digu Forondak. Zuzenean udalekin gutxi jarduten dute; hala ere, baliteke Foru Aldundiaren eskutik herriz herri eramateko ezer antolatzen badu geurera ere ekartzea.

## “Noizbehinka paseatzera ere irten zaitezke”

**Ezohiko lekuan du egoitza nagusia Hurbilek: baserri baten, Aretxabaletako Bikarixuena baserrian, alegia. Arkarazo auzoan dago hori; gainerako instalazioak industrialdean dituzte. Buruari eragiteko leku paregabea da baserria, Enrique Foronda enpresako zuzendariaren esanetan: “Oso leku erosoa da: noizbehinka irten zaitezke, paseatzera joan… Leku lasaia da, isila eta bakartia. Aukera irten zitzaigunean, *zergatik ez?*, pentsatu genuen”.**

**Bake eta isiltasun hori ez da hobeto inspiratzeko formula miragarria, ordea: “Ez, ez, inspirazioa lanaren, irakurtzearen, dokumentatzearen… ondotik dator”, diosku Forondak.**



Aretxabaletako Bikarixuena baserrian dago Hurbil kulturgintza.

## Denetariko gaiak

**MAHASTIA ETA ARDOA**

**Errioxako erakusketa garrantzitsuenetako bat da. Urtero Hurbilek egiten du.**

**EUSKALDUNAK ETA EUROPA**

**Arabako Sancho el Sabio Fundazioaren enkarguz, erakusketa eta liburua prestatu zituzten 2001en.**

**NAFARROAKO EUSKALKIAK**

**Joan den urtarrila arte izan zen erakusketa. Orain, Nafarroako Gobernuak herriz herri eramango du.**

**LIBURU EDIZIOAK**

**Urte askoan, eskola-liburuen euskarazko edizioak egin zituzten, eta zenbait hiriko udalen argitalpenak.**

**MUSIKA ETA ANTZERKIA**

**Araban eta Nafarroan, udako kontzertu eta antzerki saioak antolatzen dituzte.**

**AURREZKI KUTXAK**

**Gipuzkoa eta Arabako kutxa ezagunendako erakusketak sarri egiten dituzte.**

LEHIAKETAK/ **AMODIOZKO GUTUNEN XIII. BERRIGARA LEHIAKETA**

# Sari nagusiak, Debagoienetik kanpo

ORDIZIAR BATEK IRABAZI DU AURTEN, E TA BIGARREN SARIA ZARAUTZERA JOAN DA; MAILA ONA ETA ORIGINALTASUNA ERAKUTSI DUTE BIEK

LEIRE KORTABARRIA

**Alaitz Sarasola 25 urteko ordiziarrak irabazi du XIII. Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketa; bigarren Nahikari Gabilondo zarauztarra izan da. Debagoiendarrek ez dute zorterik izan aurten, eta bergarar onenaren saria bakarrik gelditu da hemen. Jardun elkarteak deitu du lehiaketa.**

Ordiziara joan da aurten XIII. Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketako 450 euroko sari nagusia. Halaxe erabaki du Fernando Morillo, Asier Serrano eta Ana Urkiza idazleek eta Modesto Arrietak, iazko irabazleak, osatutako epaimahaiak. Saritutako lanak eta finalistenak "benetan maila ona" dutela nabarmendu dute. Era berean, ikus-entzunezko hedabideen eragina "nabarmena" izan dela eta gutun asko "topikoz beteta" egon arren, "benetan originalak" ere bazeudela eta horiek baloratu dituztela azpimarratu dute.

**MAITASUNA ETA GURUTZEGRAMAK**

Originaltasuna da gutun irabazlearen berezitasun bat. Trouvilleko hondartzatik idazten dio gutuna *Danel* bere maiteari. Oporretan dago bata, lanean bestea, eta idazlea gurutzegrama baten inspiratzen da. Hona hemen zati bat: "Maitasunak asko du gurutzegramatik. Konbentzituta nago. Sentimenduek baino gehiago, hitzek dute maitasuna. Eta ezinbestekoa da horiek zuzen lotzea, barneko esanahiari izen egokia ematea. Gurutzegrametan bezala, maitasunean ere, sentitzen duzuna adierazten ez jakitea, ez sentitzearen pareko da. Laukiek eskatzen duten hitz konkretua bururatu ezean, hutsunea sortzen da. Hutsuneak gurutzegrametan eta maitasunean".

Epaimahaiak hauxe dio: "Maitasunari hurbiltzeko modua originala eta berria izateaz gain, maisuki eta xamurtasunez idatzita dago; irakurterraza da, gutun borobila".



BERRIGARA

**Iazko edizioko saridunak, sari banaketa ekitaldian. Aurtengoa ere, ohi bezala, otsailaren 14an izango da.**

*Epaimahaiak originaltasuna baloratu du, topikoz betetako gutun asko zeudelako*

*Gutun irabazleak gurutzegramak hartzen ditu aintzat; "gutun borobila", epaileen esanetan*

*Bigarren saridunak 50 urte ezkonduta daramatzan gizon baten sentimenduak jorratzen ditu*

**GAINERAKO SARIAK**

Finalistak, Nahikari Gabilondok, 240 euro irabazi ditu. 50 urteren ondoren, *Tomas*-ek *Maria Pilar* emazteari biziki maite duela hitzez aitortzen dio. Hona hemen gutunaren zati bat: "Astelehen goiz hartan astelehenak igande bihurtu zenizkidan; merkatuko lana, erromeria. Izan ere, egun bakoitza erromeria berri bat nuen zure aldamenean". "Benetako sentimenduak agertzen dira; gizonezkoaren barrunbea oso ondo adierazten du egileak", iritzi dio epaimahaiak.

Bergarar onenaren saria da Debagoienean geratu den bakarra. Iosu Arantzabal 22 urtekoak irabazi du. Institutuan ezagutu duen neskari gutuna idazteko beharra sentitzen du. Epaimahaiak saritu du "ausarta eta sinesgarria" delako eta "erdarakadak eta akatsak era aproposean" erabiltzen dituelako. 150 euro irabazi ditu Arantzabalek. "Gure artian sortu zan konplizidadeari edo feelingari maitasuna deitzia igual gehixegi izango zan, baina nik behintzat intensidade handixakin bizi izan naban", dio gutunak.

Azkenik, aurten sari berri bat zegoen: irakurle gazteek 26 urtetik beherako onenari emandakoa, alegia. 100 euroko saria Goiatz Labandibar 19 urteko oiartzuarrak irabazi du. Erbestean dagoen errefuxiatuak esperantzaz betetako gutuna idatzi dio maiteari. Urte Berriari bere herriarendako askatasuna eskatzen dio, horrek emango diolako maitearekin berriro elkartzeko aukera. Epaimahai Gazteak nabarmendu du "ondo idatzitako" gutuna izateaz gain, "mezu positiboa" duela. Hona hemen zati bat: "Askatasuna herri honentzako, askatasuna maitatzeko, askatasuna zuretzako eta askatasuna niretzako. Askatasuna, bestela ezin baitzaitut maitatu nahi zaitudan bezala".

DATUAK

## Emakumeen parte-hartzea altua izan da aurten: %64

**Aurten, 72 gutun jaso dituzte antolatzaileek, Bergarako Jardun elkarteak. Izan diren 13 edizioetan, 1.915 gutun jaso dituzte.**

**Aurtengo parte-hartze datuei dagokienez, honakoa azpimarratzen dute antolatzaileek: emakumezkoen parte-hartzea altua izan da (%64). Bergaratik sei gutun jaso dituzte; Debagoienetik, 15; Gipuzkoatik, 45; Bizkaitik, 16; Arabatik, hiru; Nafarroatik, sei, eta Bartzelonatik, bi. Postaz jaso dituzte gehienak: %55. Beste %45, aldiz, posta elektronikoz bidali zituzten.**

**Parte-hartzaileen bataz besteko adina 25 urte izan da.**

SARI BANAKETA

## San Valentin egunean, gutunak irakurri eta sariak jasoko dituzte

**Amodiozko gutunen lehiaketako sari banaketa, tradizio bihurtu den bezala, San Valentin egunean egingo dute, otsailaren 14an, hortaz. Bergaran izango da. Orduan, saridunek gutuna jendaurrean irakurri beharko dute, lotsa alde batera utzita. Ekitaldiaren lekua eta ordua zehazteke zituen oraindik antolakuntzak edizio hau ixteko momentuan.**

**Bien bitartean, gutunak osorik irakurtzeko aukera dago. Hain zuzen ere, lehiaketaren antolatzaileak, Bergarako Jardun euskara elkarteak, bere webgunean ipiniko ditu gutunok. *www.jardun.net* duzue webgunearen helbidea.**



GOIENKARIA

**SMS bidezko mezu lehiaketak hirugarren aldia du.**

SMS BIDEZKO MEZU LEHIAKETA

## Lesakar batek irabazi du, mezu motz eta zehatza eginda

**Hirugarren edizioa bete du SMS bidezko maitasun mezuen lehiaketak. Miren Rubio 19 urteko lesakarrak irabazi du, honako mezuarekin: "Esan nahi ezin dena esan nahi dizut, baina laburtuz, maite zaitut". 90 euro irabazi ditu, hain zuzen. Epaimahaiaren iritziz, "motza eta zehatza" da. Estilo guztietako mezuak jaso dituzte; batzuk, laburdurez josita, "ulergaitzak" iruditu zaizkie.**

**26 urtetik beherako gutun onena aukeratu duten bergarar ikasleek eman dute sari hau ere: Jone Fernandez, Janire Lazkano, Gorka Artola, Naiara Etxaniz, Maite Errarte eta Miren Lizarazu.**

# Otsailak 4-11

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## IKUSKIZUNAK

### ARRASATE

► **Giriguai zirko ttipiaren** emanaldia izango da bihar, zapatua, Amaia Udal Antzokian, 17:00etan.

► ***Betizuak izar artean*** umeendako ikuskizuna izango da martitzenean, hilak 8, Amaia Udal Antzokian, 17:00etan.

### BERGARA

► ***Patata, patata!*** ikuskizuna egingo dute Pirritx eta Porrotx pailazoek bihar, zapatua, pilotalekuan, 16:00etan. Sarrerak salgai daude kultura etxean eta pilotalekuan, 4 eurotan.

► ***Hamaika koloretan dantzan*** antzerki musikala egingo du Ane Monna Oskola eta Karramarroi taldeak etzi, domeka, pilotalekuan, 18:00etan. Sarrera 3 euro da. Kultura etxean eta pilotalekuan eros daitezke txartelak

► **Zineklub emanaldiak** izango dira Go Jam aretoan hilaren 3an eta 10ean, eguena, 21:00etan. Hilaren 3an, Quentin Tarantinoren *Kill Bill* eta *Kill Bill 2* filmak emango dituzte; 10ean, Alejandro Amenabarren *Tesis*. Doan da.

### ELGETA

► ***Igandeetan, piratek jai*** antzezlana egingo du Markeliñe taldeak bihar, zapatua, Espaloia antzokian, 17:00etan.

### OÑATI

► **Juanito Oiartzabalek** *Al filo de lo imposible* saiorako grabatutako K2ra igoeraren filma emango du gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:30ean, Aloña Mendiko mendi sailaren eskutik. Sarrera doan da.

► **Potxin eta Patxin** pailazoen emanaldia egongo da martitzenean, hilak 8, Zubikoan, 17:00etan.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► ***Bizikidetzaren oinarriak: gatazkak nola bideratu*** delako hitzaldia egingo du Juan Carlos Alonso psikologoak eguenean, hilak 10, eskolako aretoan, 18:00etan.

### ARETXABALETA

► **Luz Ardidenera** eski irteera deitu du Murrukixo elkarteak otsailaren 19 eta 20rako. Bazkideendako, 90 euro da; gainerakoendako, 95; ikasleendako, 5 euro merkeago. Prezioan sartzen dira autobusa, logela, afaria, gosaria eta segurudun forfaita. Izena emateko, jo euren egoitzara martitzenetan, 19:00-20:00 ordutegian.

► **Odol-ateratzeak** egingo dituzte astelehenean, hilak 7, osasun zentroan, 16:00-20:00.

► **Aizkorriko parke naturalaren** gaineko hitzaldia, joan den astean bertan behera geratu zena, eguaztenean, hilak 9, izango da udaletxeko ganbaran, 19:00etan.

### ARRASATE

► ***¿La Europa de quién?* liburua** aurkeztuko dute egileetako bik astelehenean, hilak 7, Monterronen, 19:00etan. Elena Belokik Europako politikaz berba egingo du, eta Nekane Juradok, Europako Konstituzioaz eta Europa sozialaz. Mondrauetarrak taldeak antolatzen du.

► **Europar konstituzioaren** gaineko euren jarrera eta egingo duten kanpaina aurkeztuko du Zutik taldeak astelehenean, hilak 7, Jai Zale tabernan (Olarte kalea 37), 18:30ean.

► **Musakolako igerileku girotuak** itxita egongo dira otsailaren 7tik 13ra bitartean, urteko garbiketa egiteko. Medikuak aginduta igerilekura joan behar dutenek Aretxabaletako igerilekua erabiltzeko aukera izango dute, Musakolan hala eskatuta. Sauna eta lurrun-bainua zabalik egongo dira. Argibideak: 943 77 16 77.

► **1940an jaiotako emakumeek** ospakizuna izango dute otsailaren 26an. Meza entzun eta batera bazkalduko dute Musakolako Hostalean. Izena emateko, jo Hire liburu-dendara hilaren 19a baino lehen. 20 euro aurreratu behar da.

### ESKORIATZA

► ***Zubillagako hiltegiaren eta Debagoieneko harakin eta ganaduzaleen etorkizuna*** delako jardunaldiak egingo dituzte hilaren 8an eta 9an Ibarraundi museoan, 18:00etan. Hainbat hitzaldi egingo dituzte.

### OÑATI

► **Baqueira Beretera** bi eski irteera deitu ditu Aloña Mendik (otsailak 25-27 eta martxoak 11-13). Izenematea zabalik dago Aloña Mendi tabernan, martitzen eta eguaztenetan, 19:30-21:00.

► ***Baserriko bizimodua eta lanabesak*** delako hitzaldia egingo dute Natur Eskolako arduradunek eguaztenean, hilak 9, kultura etxean, 18:30ean, Errekalde Herri Eskolak antolatuta.

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Argazkigintza digital, txalaparta eta alboka** ikastaroak antolatu ditu Udal Gazte Sailak. Izenematea Gazte Bulegoan egin behar da lehenbailehen, leku kopuru mugatua dago eta. 20 euro da matrikula; 12, berriz, langabe eta ikasleendako.

### BERGARA

► **Windows eta Microsoft Word** ikastaroa deitu du Udal Enplegu Sailak otsailaren 14tik 18ra bitartean. Izenematea zabalik dago udaletxean otsailaren 7tik 11ra bitartean.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Lukas Prest, Aby-kem eta talde sorpresa batek** joko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean. Sarrera doan da.

► **Obligaciones eta Los Cretinos** taldeen emanaldia izango da bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 22:30ean.

► **Arrasate Musikalek** bi emanaldi antolatu ditu Aratusteetarako: gaur, egubakoitza, ikasleek mozorro kontzertua eskainiko dute eskolan,



► OSPAKIZUNAK

### HERRITAR ASKO SANTA AGEDA ESKEAN IRTENGO DIRA EGUNOTAN

Santa Ageda eguna eta bezpera sona handiko ospakizunak dira Debagoienean. Aurten, berriro ere egiaztatuko dugu hori ibarrean egingo dituzten ekintza herrikoiekin; batez ere Leintz bailarako herrietan eta Oñatin. Gaur, egubakoitza, Santa Ageda mutilek eskea egiteko eguna da, batez ere baserri auzoetan; baina hainbat herritar eta ikasle talde euren kontutik irtengo da gaur arratsaldean, Santa Ageda koplak kalejiran abesten. Bihar, zapatua, Santa Ageda eguna ospatuko dugu, eta berriro kintoek kantu kalejirak egingo dituzte. Aretxabaletan, esaterako, dantza ere egingo dute Herriko Plazan, iluntzean. Arrasateko Gesalibar auzoan jaiak ospatuko dituzte, eta Garagartzan ere oso ospakizun maitea da Santa Ageda.

**Non:** Ibarreko herri gehienetan. **Noiz:** otsailaren 4an eta 5ean. **Ekintzak:** Santa Ageda eskea kale eta auzoetan.

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA

AUKEAko gerente lanpostua bete behar da aldi baterako.

**Baldintzak:**
- Lizentziaduna zuzenbidean, zientzia politikoetan, enpresa edo ekonomia zientzietan, merkataritzako intendentea edo aktuarioa.
- Euskara: 4.HE

Interesdunak otsailaren 16an aurkeztu behar dira goizeko 10:00etan Udaletxean hautaketa probak egiteko.

**Oinarriak**: Udaletxean eta web orrian jaso daitezke: www.arrasate-mondragon.org

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal Saila

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

Laser bidezko depilazioa
Ile mota bakoitzarentzako laser bat.
Ile kolore bakoitzarentzako laser bat.

- Neodimio Yag laserra
- Alexandrita laserra
- Fotodepilazioa

Ordua eskatuta:
diagnostikoa, proba doan eta aurrekontua.

18:30ean; martitzenean, hilak 8, Arrasate Musikaleko Balet eta Bandaren Zirkoak kalejira egingo du 19:00etan. Bandako kide guztiak mozorrotu egingo dira, eta baletekoek maramarista lanak egingo dituzte.

### BERGARA

► **Asiako itsasikarak kaltetutakoen aldeko** kontzertua egingo dute Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 22:30ean. Sarrerak salgai daude, 5 eurotan, Lazkano oinetako dendan, pilotalekuan eta kultura etxean.

► **Zure** taldeak folk emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Pol-Pol tabernan, 23:30ean.

► **Organo Erromantikoaren Nazioarteko VI. Zikloaren barne,** Koro Saenz organo-jotzaileak eta Jose Mari Etxepare tronpeta-jotzaileak emanaldia egingo dute bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan.

► **The Bon Scott Band eta Lobo Electrico** taldeek joko dute bihar, zapatua, San Martin plazan, 22:30ean. The Bon Scott Band talde kataluniarrak AC/DC taldearen bertsioak jotzen ditu. Kontzertuaren atsedenaldian, mozorro jaia izango da.

► **Aratusteetako techno jaialdia** izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 00:00etan. Hainbat disko jartzailek girotuko dute gaua. Sarrera eta edaria, 12 euro.

### OÑATI

► **Jabi-Sound** disko jartzaileak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, 19:00etan, Herriko plazan; eguraldi txarra balitz, gaztelekuan.

## OSPAKIZUNAK

### ANTZUOLA

► **Sorgin dantza kalejira** egingo dute etzi, domeka, 10:00etan. Hartza, hezitzailea eta tximinoa 12:00etan irtengo dira kalejiran.

### ARAMAIO

► **Aratuste-zapaturako** kalejira, mozorro lehiaketako sari banaketa, txokolate jana eta antzerkia deitu dituzte, arratsaldean.

### OÑATI

► ***Luzaideko Ihauteria*** dantza kalejira egingo du Oñatz taldeak etzi, domeka, 18:30ean.

# Zinema

### ANTZUOLA

■ **OLARAN ETXEA**

***El rey Arturo***
Egubakoitza: 22:00.

***Zafarrancho en el rancho***
Domeka: 16:30.

### ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

***La terminal***
Egubakoitza: 22:30.

***Buzz light year***
Domeka: 17:00.

### ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

***Ocean's twelve***
Egubakoitza: 19:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

***Azti ikaslea***
Domeka: 17:00.

***Contra la pared***
Eguena, zinekluba: 20:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

### BERGARA

■ **NOVEDADES**

***Obsesión***
Egubakoitza: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

***El maquinista***
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

### ELGETA

■ **ESPALOIA**

***Harry Potter y el prisionero de Azkaban***
Domeka: 17:30.

***Monster***
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

***El maquinista***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Cinco chicos y esto***
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

***La gran seducción***
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***El aviador***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

***El mensajero del miedo***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***Los padres de él***
17:30, 20:00, 22:30.

***Elektra***
17:30, 20:00, 22:30.

***Miércoles de ceniza***
17:30, 20:00, 22:30.

***Entre vivir y soñar***
17:30, 20:00, 22:30.

***El aviador***
Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 21:15.
Domeka: 17:00, 20:30.

***Ray***
17:00, 19:45, 22:30.

***Closer***
17:00, 19:45, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***Los padres de él***
17:30, 20:15, 22:45.

***Bob esponja***
17:30, 20:15.

***Coffee and cigarettes***
22:45.

***El maquinista***
17:30, 20:15, 22:45.

***Elektra***
17:30, 20:15, 22:45.

***La búsqueda***
17:20, 19:50, 22:35.

***2046***
17:15, 20:00, 22:30.

***Los increíbles***
Zapatua eta domeka: 17:15.

***María, llena eres de gracia***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

***Mar adentro***
17:15, 20:00, 22:30.

***Conociendo a Julia***
17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***Million dollar baby***
17:00, 19:45, 22:30.

***Alejandro Magno***
17:00.

***La memoria de los muertos***
20:30, 22:30.

***La vida es un milagro***
17:00, 19:45, 22:30.

***Largo domingo de noviazgo***
17:00, 19:45, 22:30.

***Sólo un beso***
17:30, 20:00, 22:30.

***Conversaciones con mamá***
17:30, 20:00, 22:30.

***Los chicos del coro***
17:30, 20:00, 22:30.
